# ttipi ttapa

323

2002ko apirilaren 11 • XXII. urtea



## Baztango sismometroa 04

Penintsula osoko lurrikarak somatzen ahal ditu Baztanen dagoen sismometroak. Koldo Nuñez geologoaren ustez hemengo baserriak seguruak dira.



## Joku Zuzenaren lehen bilkura 28

Valentziako eta eskualdeko pilotariak elkartu dira Laxoa Elkarteak antolatutako Joku Zuzenaren lehen bilkuran. Esperientzak trukatzeko baliagarria izan da.



# Bidasoako Musika Eskolak Beran elkartuko dira 03

# LEHEN MAILAKO SEGURTASUNA



**EGUR LEHERTZEKOAK**

**Kalitate eta prezio egokiak**

**KABESTRANTEAK**



**AROZ - BERRI, S.A.**
NEKAZARITZAKO TRESNERIA
N-121-B errepidea, 54. km.a
Tel: 948 581 021 - 948 580 258 • Fax: 948452103
31730 **IRURITA**

---

PLAN DE DIFUSION DE LA CALIDAD EN NAVARRA 2002

## Informazio-formazio jardunaldia

GAIAK

- Nafarroako Gobernuaren laguntzak 2002, konpetibitatea hobetzeko
- Kalitatea 2002 zabalkunderako Nafarroako Planaren xehetasunak
- Kudeaketara ereduak eta tresnak: zein dira eta zertarako balio dute
- Oinarrizko elementuak Kudeaketa Plan egoki batekin lan egiteko

**Tokia:** Bidasoako Enpresei Bideratutako Zerbitzu Zentrua / Alkaiaga - LESAKA
**Eguna:** 2002ko apirilaren 11 **Ordua:** 17:00ak

**Bultzatzaileak**

ain — Fundación Navarra para la Calidad

**Laguntzaileak**

Nafarroako Gobernua, Berako Udala, Lesakako Udala Ttipi-Ttapa Fundazioa eta Cederna Garalur

Sarrera doan. Leku mugatua. Baieztatu joateko asmoa CEDERNA GARALURen
Arduraduna Begoña Iparragirre ✆ 948625122 e-Posta. bidasoa.admon@cederna.es

DATUAK...

• Apirilaren 27an ospatuko da Beran Bidasoaldeko Musika Eskolen II. Topaketa, Isidoro Fagoaga Eskolak antolatuta. Berako eskolarekin batera, Irun, Hondarribia, Hendaia, Lesaka eta Doneztebekoak bilduko dira.

• Lourdes Iza hondarribiarra da sortzez. 10 urte ditu Berako Musika Eskolan eta zuzendari ordea da. Topaketa honetan 450 musikari inguruk parte hartuko dutela erran digu, herrian barna prestatuko dituzten lau eskenatokietan.



Aitor AROTZENA

**Lourdes IZA** *Berako Musika Eskolako zuzendari ordea*

# «Musika eskolen lana herritarrei hurbildu nahi diegu Topaketa honekin»

Aitor AROTZENA

**Zenbat eskola bilduko zarete Bidasoaldeko Musika Eskolen II. Topaketa honetan?**

Sei musika eskola elkartuko gara, Hondarribia, Irun, Lesaka, Hendaia, Doneztebe eta Berakoak. Iaz eskola hauek elkartu ginen eta proiektu gisara sei urtez segidan topaketa hauek egitea erabaki zen. Iaz Hondarribian egin zen, aurten Beran eta heldu den urtean Lesakan eginen da.

**Egitarauari dagokionez, zein ekitaldi nagusi izanen dituzue?**

Gure asmoa eskoletan zer egiten den herriari erakustea da. Lau eszenatoki ezberdinetan eginen dira musika emanaldiak, bi barnean, Kultur Etxean eta Musika Eskolan eta bi kanpoan, Altzateko Plazan eta kiroldegiaren atarian. Kanpoan talde guziak elkartuko dira: bandak, orkestrak, txistulariak, akordeolariak, trikitixak... Barnean klasikoa, kamara musika, pianoa lau eskutara, tronpeta, klarinetea... talde ttikiagoek joko dute. Hurbiltzen den jende guziari zer lan egiten den erakustea da gure nahia. Hortaz aparte, haurrek musika egiteko beste modu bat bizitzea nahi dugu.

«Lehen buruz ikasten ziren, eta orain notak ipuin eta kantuen bidez ikasten dituzte txikienek»

**Zenbat musikari espero dituzue egun horretarako?**

Hasieran pixko bat estutu ginen: bileratan harremanean jarri ginenean 300 bat pertsona elkartzea espero genuen, baina gero musika eskola bakoitzak 50 minutuko programa ekartzea pentsatu genuen. Programak biltzen hasi gara eta 450-500 bat musikari bilduko gara, hasieran uste zena baino gehiago. Baina proiektua aurrera doa eta pozik gaude.

**Zuen lana karrikaratzeaz gain, bertze helbururik baduzue?**

Gure helburua gehien bat haurrek musika disfrutatzea eta bizitzea da. Musika eskoletan jende dexente daukagu, baina gure helburu garrantzitsuena musika barrenean eta kalean bizitzea da. Noski, publikoaren aurrean jotzen ikastea ere inportantea da, eta hortaz aparte, musika eskolek daukagun maila agertu nahi dugu. Hemendik kanpo sari handiak lortu dituzte gure ikasleek eta beraien musika herriari eskaini nahi diogu.

**Berako Musika Eskolan zein adineko ikasleak dituzue?**

4 urtetik 11 urte bitarteko ikasleekin mugitzen gara gehien bat. Ikasle helduenak 15-16 urtekoak dira. Helduentzat ere matrikula irekia dago, baina ez du arrakasta handiegirik, igual lotsagatik edo denbora faltagatik... baina helduak musika eskolara hurbiltzea gustatuko litzaiguke.

**Garai bateko solfeotik oraingo musika ikasketara zer aldatu da?**

Aldaketa haundia izan da. Ni hasi nintzenean notak eta erritmoa buruz ikasi behar ziren eta ulertu edo ez, aurrera! Orain, txikiek ipuin eta kantuen bidez ikasten dituzte notak. Erritmoa praktikarekin lantzen da: oinez erritmo bat dugula, korrika beste bat... erritmoa zer den ulertzen dute horrela. Musika tresnetan ere aldatu da. Lehen notak jotzera dedikatzen ginen eta orain teknika gehiago lantzen da, hauspoa nola ireki, itxi...


Bagordin dagoen Espainiako Geologia Institutuaren etxola

**Nafarroako iparraldean azken hilabeteotan intentsitate bazuko lurrikarak somatu dira. Euskal Herrian bi sismometro daude lurrikarak neurtzeko, horietako bat Elizondotik hurbil, Bagordin. 1990ean jarri zuten eta penintsula osoko lurrikarak somatu ditzake nahiko handiak badira. Iaz Espainiako Geologia Institutuak Alkurruntzen bertze sismometroa jartzeko baimena eskatu zuen. Antza denez, Baztango Harri Gorria lurraren mugimendua erraz trasmititzen du, eta bertzalde, isolatzailea da, ez du ura pasatzen uzten.**

1990EAN JARRI ZUTEN 12 METRO LUR AZPIAN

# Baztango sismometroak penintsula osoko lurrikarak somatu ditzake

Rakel GOÑI

Lurrak dardar egiten duenean sismometroek intentsitatea eta magnitudea neurtzen dute, bertzeak bertze. Euskal Herrian bi sismometro daude eta horietako bat Baztanen, Elizondotik hurbil, Bagordi mendian. Zergatik hautatu dute bailara hau lurrikarak neurtzen dituen gailua jartzeko? Faktore geologikoengatik. Hareharri gorria (Baztango harri gorria), mugimendua trasmititzeko ona da eta era berean haitzek ez dute ura pasatzen uzten. Euskal Herriko bigarren sismometroa Araban dago. Jacan dagoenarekin bat eginda, hiruek, triangelu bat irudikatzen dute, informazio sare bat osatuz. Alkurruntzen, Baztanen ere, bertze sismometroa jarriko dutela iragarri da.

## Bagordiko sismometroa

Bagordiko sismometroa lurrazpian dago sartua, 12 metroko sakoneran. 1992an jarri zuten, itsasoaren mailatik 523 metrora. Kanpotik kutxa baten itxura du eta barrenean bibrazioak sentitzeko aparatua du. Elektronikoki bertze kutxa batera bidaltzen du informazio guzia. Telefono kablearen bitartez bidaltzen du seinalea Madrilen dagoen Institutu Geografikoaren egoitzara. Sismometroaren kanpokaldean etxola bat dago, eguzki plaka batzuen bitartez indarra hartzen du. "*Andaluzian 5 edo 6 graduko lurrikara emanen balitz, Baztango aparailuak sonatuko luke*" azaltzen digu Koldo Nuñez goelogoak.


Sismometroak lurraren bibrazioa neurtzen duten gailuak dira.

## Lurrikaren zergatia

Azaletik lurra osoa ikusten badugu ere, barnetik zartatua dago. Zartadura horiek fallak dira. Falla horietan lurrak elkar ukitzen du, alde batek bertzea ukitzen du, mugimendu hori da beraz, lurrikara sortzen duena. Nafarroako iparraldean azken hilabete-




## Koldo Núñez *Geologoa eta Elhuyarreko kidea*

# "Hemengo baserriak egonkorrak dira eraikuntzan ormigoia erabiltzen delako"

**Zein desberdintasun dago sismometro eta sismografoaren artean?**
Sismometroak lurraren mugimendua neurtzen du eta telefono bidez datuak bestе tokietara bidaltzen ditu. Sismografoa paperean lurraren bibrazioa isladatzen du. Lurrikararen magnitudea eta iraupena jakin daitezke.
**Geologoentzat interesgarria al da gure eskualdea, lurrikarak aztertzeko?**
Ez, Euskal Herriko sismoak oso txikiak dira. Eta horrelakoak ematen dira etengabe toki askotan, ez diugute informazio handirik ematen. Handiagoak izan beharko lirateke lurraren barneko informazio asko jaso ahal izateko.
**Euskal Herrian eraikuntzan, neurriak hartzen dira lurrikaren efektuak saihesteko?**
Neurri berezirik ez da hartzen eskualdeak ez duelako horrelakorik eskatzen. Lurra ez dagoenean ondo asentatua orduan bai, sendotasuna lortzeko bitartekoak behar dira. Dena den ez dut uste beharra ere badenik.
**Halere egia da, hemengo baserriek lurrikarak jasotzeko sendoak direla?**
Bai, hemengo etxeak bertze herrialde aunitzetakoak baino egonkorragoak dira. Hemen ormigoia asko erabiltzen da eraikuntzan. Asian toki askotan etxe oso sendoak egiten ari dira, Hego Amerikan ordea kontrakoa gertatzen da. Eskualde hauetan lurrikarak gertatzen direnean hildako ugari izaten da etxebizitzak sendoak ez direlako.
**Gure eskualdean Richter eskalan 6-7 graduko lurrikara eman daiteke?**
Ezinezkoa bizitzan ez da esistitzen baina, Richter eskalan 6 edo 7 graduko lurrikara Euskal Herrian ez dela gertatuko esan genezake. Historian ez dira horrelako lurrikarak ezagutzen, gertatu direla ziurra da baina orain dela milaka urte gertatu ziren. Pentsa daiteke milaka urtetan ez bada gertatu ez dela gertatuko orain. Ezaugarri biologikoek ere ez dute horrelakorik adierazten.

otan gertatzen ari diren lurrikara ttikiak fallak mugitzen ari direlako gertatzen ari dira. Halere, ezin daiteke azaldu, zergatik ari diren mugitzen orain, eta ez bertze momentu.

### Lurrikarak ezin dira aurrikusi

Gaur egun dagoen teknologiarekin ezin dira lurrikarak aurrikusi. Eskualdean lurrikarak arras ttikiak dira. Kalifornia inguruan ordea, datu gehiago jaso daitezken arren, hor ere ezin dituzte aurrikusi. *"Tarteka susmoak dituzte. Teknologia gehiago dute han, han lurrikarak indartsuagoak direlako. Txinan saiakerak egin dituzte lurrikarak aurrikusteko baina ezer gutti lortu dute Zergatik gertatzen dira lurrikarak? Tokatzen delako"* dio Nuñezek.

### Historian datu gutti

Nafarroako historian, XX. mendean erregistratu zen lur migumendu garrantzitsu bat. Datu hori agiriekin ziurtatu da. Erronkari aldean, Isaban gertatu zen, 5 gradu ingurukoa izan zitekeen eta etxeren bat ere erori zela erran zen. Aipamen hau ezik ez da bertze informaziorik aurkitu lurrikaren inguruan, eskualdean lurrikara gutti ematen baita.

## HISTORIAN IZAN DIREN LURRIKARA HANDIENAK



XVIII. menderarte ez dago lurrikaren neurketen daturik. Gertakari hau ulertzea zaila zen zientzilariendako eta gehienetan ematen zituzten azalpenak, bazuten Jainkoaren zigorrekin zerikusia. Halere historian neurtu den lehen lurrikara Txinan eman zen K.a. 1177. urtean. Europako historian aipatzen den lehenengoa K.a.ko 580. urtekoa da. XVI. menderaino jo behar da azalpen handiko lurrikara bat harrapatzeko.
XVII. mendean gero eta gehiago solasten da fenomeno hauen inguruan, baina, badirudi datuak erabat handitu zituztela garai hartakoek.
Ipar Amerikan lurraren mugimendua laster aztertzen hasten dira. 1811n New Madrid, Missourin 8 gradu inguruko lurrikara eman zen. Mugimendua arras urrun somatu zuten, hala nola Denver edo Bostonen. Baina zorionez inguruko hirietan ez zen jende aunitz bizi eta ez zen ia hildakorik egon. San Franciscon 1906an kontrakoa gertatu zen. Ia 700 hildako izan ziren eta hiria erabat suntsitua geratu zen izandako lurrikara eta ondoko sutearengatik. 250.000 pertsonek etxebizitza galdu zuten. Historian ezagutzen den handienetarikoa Alaskan eman zen 1964ko martxoaren 27an. Dentsitate demografiko urriko eskualdea denez 107 pertsona bakarrik hil ziren. Halere datuak beldurgarriak dira kontuan hartuz lurrikara 500.000 milla koadroetan somatu zela eta lurretik zuhaitz aunitz atera zituela.
El Salvador-en eta Indian jende asko hil da berriki lurrikaren ondorioz. Zenbait tokitan ia orduero daude lurrikarak, txikiak noski.





## • IRAKURLEAK MINTZO •

arraildurak handitzen diren. Noiz arte egon behar gara zai? Pareta bat erori arte? Haurren bat zauritu arte?

Bistan dugu zenbaiteraino arduratzen den Udal hau herrietako eskolengatik eta herritarren ziurtasun fisikoagatik. Ez ote dugu herri txikietako biztanleek eta geure haurrek, herri handietakoen eskubide berdinak? Zergatik konformatu behar gara eskola zaharkitu batekin?

Aizkungo gurasoak kezkaturik gaude geure haurrak arriskuan ikusten ditugulako eta haserre ez zaigulako inongo kasurik egiten, horregatik heldu den kurtsorako ez bada eskola konpondu, umeak kalean utziko ditugula erabaki dugu, neurri honi dagozkion erresponsabilitate eta kalte guztiak Baztango Udal honi leporatuz.

**Arizkungo Eskolako Gurasoen Elkartea**

### Arizkungo eskolaz

Kaixo zuzendari jauna: Gu Arizkungo 4. mailako ikasleak gara. Protesta bat egin nahi dugu Arizkungo eskola ikusita. Eskola erortzeko zorian dago, ateak ezin dira itxi, patioa oso gaizki dago eta kolunpiorik ez dugu. Udan eskatu genituen eta kendu bai, bainon oraindikan ez digute paratu. Patioan erortzekin zauri haundiak egiten dira harritxintxarrez estalita dagoelako. Gurasoak udalera aunitz aldiz joan dira protestatzera. Herriko jendearen firmak bildu zituzten. Lau orrialde betez eta gero udalera eraman zuten baina ez zieten kasurik egin. Uda honetan konpontzea nahi dugu. Agur.

**Iñaki, Andoni, Mirian eta Jokin.**

### Osasun zerbitzua eta euskara

Herritarroi eskubideak aitortzen zaizkigunean, ustez, ez dugu eskubide horiek betearazteko aparteko ahalegina egin beharrik. Eskubidea izaki, beharrezko gertatzen zaigun edo nahi dugun momentuan erabil dezakegu.

Ez zaigu hori gertatzen, ordea, Nafarroan euskaldunoi. Nafarroako edozein herritara joan eta erdaldunak ez du inongo arazorik izanen gaztelaniaz medikuarekin, erizainarekin, pediatrarekin hitz egiteko, komunikatzeko. Horretarako eskubidea dauka eta, jakina, komunikabideetara, gobernuaren departamentuetara edo Arartekoaren bulegora gutunik bidali gabe edo bestelako protestarik egin gabe, bere eskubidea beteko da.

Euskaldunoi, aldiz, ez zaigu gauza bera gertatzen. Mediku, erizain edo pediatrarengana joan eta, askotan, erdaraz egin beharko dugu. Nafarroako edozein herritan, baita eskualde edo herririk euskaldunenetan ere. Ba omen ditugu nafar batzuk, iparraldean bizi garenok alegia, besteok ez dituzten eskubide batzuk, administrazioarekin euskaraz egitekoa esaterako, nafarrok hiru zatitan banatzen gaituen lege horren ondorioz. Baina "omen" diogu, izan ere, ezin da medikuarekin euskaraz egin honek ez baldin badaki. Eta hori da Nafarroako herriotan, herri erdaldun nahiz euskaldunotan, gertatzen zaiguna. Osasun etxeetan langile erdaldunak ditugu, euskarazko zerbitzurik eman ezin dutenak, eta Nafarroako Gobernuaren aldetik egoera hori konpontzeko ahaleginik ez dugu inondik ere ikusten.

Are gehiago, jakin dugunez osasun etxeetako hainbat lanpostu lekualdatze-lehiaketen bitartez betetzeko deialdia egin dute berriki eta deialdi horretan ez da inolaz ere ziurtatzen gure herrietara etorriko diren osasun-langileak euskaldunak izanen direnik. Gutako batzuk medikuarekin euskaraz egiteko aukera izanen dute, beste batzuk ez. Zeren arabera? Ez dakigu, eta ez dago jakiterik, ez baitute administrazioko arduradunek inolako azalpenik ematen.

Lesakan, Leitzan, Elizondon edo Altsasun, esaterako, medikuarekin erdaraz egin nahi duenak ez du inongo arazorik izanen. Euskaraz egin nahi duenak, berriz, ez du eskubide hori ziurtatua izanen, eta lasai aski aurkituko du erdaldun hutsa den profesionala. Hori bai, baliteke alemanez oso ongi moldatzen dena izatea, gure eskualderako lanpostuetako hainbat deialditan baloratuko baita, euskararen neurri bertsuan. Denok dakigu Zubietan, Goizuetan, Arizkunen eta Etxalarren, herritarren artean eta eguneroko bizitzan alemanera, frantsesa eta ingelesa barra-barra erabiltzen direla, eta lanpostu hauetaz jabetzeko ezinbestekoa dela haiek ezagutzea.

Osasunbideak euskarari ematen dion trataera ikusita, nola esan liteke herriotan euskara ofiziala dela eta hizkuntza eskubideak aitortzen zaizkigula? Noiz arte ibili beharko dugu euskaldunok behin eta berriz oinarrizko eskubide hori aldarrikatzen? Ez dakigu, zoritxarrez, zein den erantzuna, baina erantzukizuna norena den garbi dago gure ustez. Administrazioak, kasu honetan Nafarroako Gobernuak, arazo hauek guztiak konpondu behar ditu, eta Nafarroa osoko herritarron hizkuntza eskubideak betearazi behar ditu. Ez dugu inor baino gehiago izan nahi, baina ezta inor baino gutxiago ere. Euskaldunok osasun zerbitzua euskaraz jasotzeko eskubidea eskatzen ari gara, baina ez mesede bat eskatzen den moduan, oinarri-oinarrizkoa iruditzen zaigun eta ukatu ezin zaigun eskubidea delako baizik.

**Gloria Irurtia Lizarraga**
**Kepa Mateorena Alvarez**
**Josune Martzol Ormazabal**

### Goizuetako liburutegiaz

Goizuetako Guraso Elkarteak txoko bat ireki berri du haurrentzat. Etxeko lanak edo puzzleak egin, irakurri, eta abar egin dezaten.

Horren helburua: elkarlana landu, modu egokian egoteaz gain, eta irakurtzeko zaletasuna sortzea izango litzateke. Ikastetxeko jangelan ireki behar izan dugu, beste lekurik ez geneukalako, beraz behin behinekoa da, eta arrakastarik izanen balu, gure xedea herrian benetako liburutegi bat edukitzea izango litzateke. Egunean hiru bat orduz irekita edukitzea nahikoa izanen litzateke.

Orain eskolako jangelan dagoen hau, ostegun eta ostiralez irekitzen dugu, 17:00etatik 19:00etara, gurasoak arduratuz. Oso harrera ona izan du, bai guraso bai haurren aldetik. Beraz, ea irakurle onak ateratzen zaizkigun eta herriari kultura ematen diogun.

**Maite Loiarte.**

## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Diario de Navarra, 2002ko apirilaren 4a

*«Bizian hain errazak iduri duten gauzak, orraxtatzea edo bizkarrean botoia lotzea, aunitzentzat ezinezkoa da. Pertsona hauek, beraiek, laguntzarik gabe egin nahi dituzte gauzak. Kirola eginez lortzen badute pozgarria da beraientzat. Gorputza mugitu behar da, giharrak batez ere, behartu gabe. Adineko jendeak askotan uste du ezin duela soinketarik egin, baina ez da hala, kirol aunitz egin dezakete. Zenbait neke kentzeko nola egin irakasten diegu, eta harritzen dira uste baino gehiago egin dezaketelako».*

Karmele BERRIDI
Arkupeak-eko monitora
D. Navarra 02-04-04

*«Pirinioa, iruditzen zait neurri batean, gizakiak hankapean hartu duela».*

Joseba OTONDO
Elizondoko Mendizalea
D. Noticias 02-04-04

*«Perun gehien gustatu zaidana mendian dagoen Machu Pichu herri galdu bat da».*

Aritz GAZTELU
Elizondoko Mendizalea
D. Noticias 02-04-04

## • 11 GALDERA LABUR•



## Cristobal URRUTIA *Iruritako antzerki zuzendaria*

**Antzerkia edo zinea?**
Arras gauza ezberdinak dira. Baina antzerkia nahiago dut bixiago da.

**12 ordu Eskuarazeko obra edo Aranabia antzerki taldearena?**
12 ordu Eskuaraz helburu berexi batekin egina da eta Aranabiarena komedia bat da.

**Nondik heldu zaizu antzerki zuzendaritzaren afizioa?**
Ez dakit. Behin Iruritan zuzendaria behar zen eta neri egokitu zitzaidan zuzendariaren lana.

**Nola hautatzen duzu obra bat?**
Udaberri-Udan aunitz irakurrita.

**Gustatuko litzaizuke antzerki bat egitea baliabide ekonomiko handiekin?**
Ez dut inoiz pentsatu.

**Antzoki baten beharra dago Baztanen?**
Bai, edozein herritan. Kultura arras garrantzitsua da.

**Anekdotaren bat?**
Aunitz, baina ez naiz oroitzen.

**Aktore edo zuzendari?**
Aktorea.

**Ausartuko zara tragedia bat zuzentzen?**
Nere burutik pasa da behin baino gehiagotan, dibertigarriagoa da.

**Zein lan antzeztea gustatuko litzaizuke?**
Izenburu pila bat dauzkat baino oso zaila da aukeratzea.

**Antzerkia ikustera joaten zara?**
Ez dago asko ikusteko. Azkena urrian ikusi nuen, Gaiarre antzokian.















ERRETIRATUAK

# Cantabriara bortz eguneko bidaia eginen du Arkupeak elkarteak maiatz hasieran

## Izen ematea apirilaren 15ean egin behar da, 11etatik 12etara bulegora deituz

**ttipi-ttapa**

Arkupeak elkarteak Cantabriara bortz eguneko bidaia prestatu du maiatzaren 6tik 10era. Horretarako izen ematea apirilaren 15ean egin behar da, goizeko 11etatik 12etara 948 450878 telefonoan. Dirua ordaintzeko, berriz, herrietako delegatuekin moldatu behar da edo apirilaren 17an Arkupeak elkarteak Donezteben duen bulegora agertuz goizeko 11etatik 12etara. Ateratzeko ordua izen ematerakoan zehaztuko da, baina maiatzaren 6an, bazkal ondotik abiatuko dira. Isla herrira joanen dira eta Isabel Hotelean izanen dira, pentsio osoan gela bikoitzetan, janarietan ura eta ardoarekin.

Maiatzaren 7, 8 eta 9an, inguru horretan interesgarriak diren lekuak bisitatuko dituzte. Modu berean, Covadongara joanen dira Amabirjina ikustera eta Lakuak bisitatzera. Sarrera ordaindu behar den lekuetan norberak berea ordaindu beharko du. Maiatzaren 10ean, bazkal ondoan etxera bueltatzeko abiatuko dira.



ARTXIBOA

**Cantabriara bortz eguneko bidaia egin baino lehen Lourdesera egun bakarreko bidaia egiteko modua izanen dute Arkupeak erretiratu elkarteko kideek maiatz hasieran.**

Bidai osoaren prezioa, pertsona bakoitzeko 175 eurokoa da eta banakako gelan nahi izanez gero, eta baldin bada, 60 euro gehiago. Prezio honen barne bazkari berezi bat ere sartua da.

### Maiatzaren 2an Lourdesera

Bertze aldetik, maiatzaren 2an Arkupeak elkartekoek egun bateko bidaia eginen dute Lourdesera. Izen emateko epea apirilaren 7tik 15era zabalik dago, 25 euroren truke. Arkupeak elkartetik adierazi dutenez, *«gure nahia geure gaixoak eramatea da, denak elkarrekin bidaia honetan parte har dezagun. Bere baliabidez ibili ez daitezken pertsonak dira. Bidaiaren kostea elkarteak hartuko du bere gain, baina derrigorrez gaixoaz arduratuko den senideren bat joan beharko du, eta Lourdes barna ibiltzeko garraiobidea eraman beharko dute. Senideek bidaia ordaindu beharko dute».*

Autobusen ordutegia izen ematerakoan zehaztuko da, baina 11:30etan Arkupeak taldearentzako meza izanen da Lourdeseko Saint Joseph kaperan, beraz goiz xamar mugitu beharko dira. 13:15etan, herrigunetik hurbil dauden Acadia eta Florida hoteletan bazkaria izanen dute. Arratsaldeko 15:30etan Arrosarioa errezatuko da Saint Joseph kaperan. 16:30etan erien prozesioa eginen da eta arratsaldeko 18:15etan autobusen irteera, hotelaren atetik etxera bueltatzeko.

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
LESAKA:
· Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara
· Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 · Tfnoa: 948 637050
BURLATA:
ARTEKARI, S.L., ✆ 948133328-133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea · 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

ZALAIN JATETXEA
Zalain Auzoa
✆ 948631106
BERA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Boda eta banketeak ematen dira

Lanchas
· Parketak - Tarimak
· Kutxillatzea eta bernizatzeak
· Estaldura orokorrak
Bera ✆ 948630735 - 607 406781



## BERA

# Zugarramurdiko Sorginak antzezlana aurkeztuko du Mairu Antzerki taldeak

### Umorea, dantza eta historia nahasten dute inkisizioari buruzko lanean

**Asier GOGORTZA**

Lesakako Mairu Antzerki talde amateurrak *Zugarramurdiko Sorginak* antzezlanarekin bigarren agerraldia eginen du eskenatokietan, oraingo honetan Berako Kultur Etxean. Lesakako frontoian iazko abenduan egin zuten aurkezpena, eta han ikaragarrizko arrakasta izandu zuen antzerki lan honek. Izan ere, gaia bera aski erakargarria da, inkisizioaren garaian Zugarramur-di aldean izan zen sorgin ehiza eta haren ondorio lazgarriak, alegia.

Pasarte umoretsuak eta gogorrak tartekatzen dira antzerkilan historiko honetan. Larunbat honetan, apirilak 13, da hitzordua, arratseko 8etan.



ARGAZKIA: DARIO DE NAVARRA

**Apirilaren 2an hil zen Donostian Guardia Zibilekin izandako tiroketan Joseba Andoni Urdanitz Etxeberria, 32 urteko beratarra. Herriko gaztea Lezoko PSOEko zinegotzi baten eskolta zen, eta bertsio ofizialaren arabera, kaleko jantziz eta pistolekin zeuden hiru guardia zibilek atentatua egin nahi zutela pentsatu zuen eta tiroka hasi zen. Hauek ere tiroka erantzun zuten eta Joseba Andoni Urdanitz hil egin zuten. Biharamon arratsaldean egin ziren hileta elizkizunak San Esteban parrokian. Alderdi Sozialistako hainbat kide Beran izan zen, baina ez Nafarroako Gobernuko ordezkaririk.**

## KULTUR BATZORDEA

### *Gogoeta jardunaldiak antolatu dira Kultur Batzordearen funtzionamendua hobetzeko*

Gauza nabaria da azken urteotan hobekuntza haundia izan duela Berako kultur eskaintzak, bainan egitaraua oraindik hobeagoa izan dadin eztabaida jardunaldia egitea proposatu du Kultur Batzordeak. Ekainaren 1ean izanen da bilkura hori, eta beratar guziak daude gonbidaturik. Egun horretan eztabaidatuko diren gai nagusien inguruko txostena prestatu du Kultur Batzordeak, eta honi emendakinak edo zuzenketak egin edo bertzerik gabe irakurri nahi duenak Kultur Etxean eskatzen ahal du apirilaren 26a baino lehen, baita berakultura@jazzfree.com helbide elektronikora idatziz ere.

Hauek izanen dira jorratuko diren gaiak: funtzionamendu orokorra, publizitatea, kanpora begirako estrategia, azpiegitura eta zerbitzuak, hizkuntza irizpideak...

## FLASH

### *"Etxean erabiltzen ditugun botikak"*

Gai honen inguruko solasaldiak antolatu ditu Uxua Emakume Taldeak apirilaren 15etik 18ra. Nafarroako Botikarien Elkarteko kideak etorriko dira botiken inguruko argibideak ematera, eta kontsumitzaile guziei egin diete deia. Iamotenean izanen dira ikastaroak, arratsaldeko 6etan.

### *Pako Aristi idazlearen solasaldia*

Idazle gipuzkoarra Venezuelara egindako bidaiaren eta ondotik bidaia horri buruz idatzitako liburuaren gainean mintzatzera etorriko da apirilaren 12an, ortziralarekin. Iamotenean izanen da hitzaldi hau ere.

### *Zine Kluba*

Ortzegun honetan Nueve Reinas pelikula argentinarra pasatuko dute Kultur Etxean, arratseko 8,30etatik altzinera. Fabian Bielinskyren pelikulak arront kritika onak jaso ditu. Filme argentinarretan ohikoak diren elkarrizketa biziak eta argumentu are biziagoa elkartzen dira istorio honetan.

### *1968ko kintoen afaria*

Herrian 1968an sortutako kintoen afaria izanen da apirilaren 20an Zubiondo jatetxean. Izen ematea jatetxe berean egin behar da lehenbailehen.

belardenda
Haritza
Mediku naturista kontsulta
Masajista
Legia 1, behea • BERA • © 948 630652

bortzIRUDI
BERA
FOTOKOPIAK
ENKUADERNAZIOAK
PLASTIFIKAZIOAK
FAXA E-MAILA
SKANNERRA
PAPERTEGIA
ARGAZKI MUNTAIAK
DISEINU GRAFIKOA
INPRENTA LANAK
SERIGRAFIA
ERROTULOAK
PUBLIZITATEA
Eztegara 20 behea
Tel.-Faxa: 948 63 15 21

Xirdil
© 948 631462
Altzate 1 • BERA

LESAKA

# Berrehun dantzari bilduko dira apirilaren 21eko Tantirudantzan

## Tantirumairu Euskal Folklore Taldeak antolatu du ekitaldia

Aitor AROTZENA

Faltzesko Makaia, Lasarteko Erketz, Lakuntzako Elai Alai, Berako Gure Txokoa eta Lesakako Tantirumairu dantza taldeek parte hartuko dute apirilaren 21ean ospatuko den Tantirudantza 2002 jaialdian. Tantirumairu Euskal Folklore Taldeak antolatutako ekitaldira 200 dantzari inguru eta bertze 40 bat musikari eta arduradun etorriko dira. Goizeko 11etan taldeei ongietorria eskainiko zaie hamaiketako batekin. Eguerdian kalejira eginen dute taldeek herrian barna, dantza ezberdinak eskainiz. Ordubata aldera, talde guziak Plaza Zaharrean bilduko dira eta bertan emanen dute dantza ikuskizuna. Ondotik, kanpotik etorritako dantzariak herriko dantzarien etxeetara joanen dira bazkaltzera.

Urtero bezala, arratsaldean bertze ikuskizunen bat ekartzen dute antolatzaileek. Aurten, arratsaldeko 6etan Kulki animazio taldea izanen da plazan. Antolatzaileek aipatu dutenez, euria eginez gero, udal pilotalekuan eginen dira emanaldiak.



**Eguraldiak laguntzen badu, apirilaren 21eko eguerdian dantza emanaldi ederra ikusi ahal izanen da Plaza Zaharrean. Karrikaz karrikako emanaldien ondotik jaialdia eskainiko dute Euskal Herri osotik etorritako bortz taldeek Tantirudantza 2002 egitarauaren barnean.**

FLASH

### *Beti Gazte elkartea presidente gabe*

Martxoaren 22an egin zen Beti Gazteko urteko batzarra. Joan den urtean, Salvador Iantzi presidenteak, 5 urteko lanaren ondotik kargua utziko zuela adierazi zuen, baina aurten ez da inor agertu lan hori betetzeko prest. Norbait azaldu bitartean lan hori egiten segituko duela erran du Iantzik. Iaz 440.037 pezetako superabitarekin (2644,68 euro) akautu ondotik, aurten 66.632 euroko (11 milioi pezeta pasatuxeak) aurrekontua izanen du Beti Gaztek bere ohiko ekitaldiak gauzatzeko. Egoitza moldatzeko asmoa du elkarteak, leihoak aldatuz eta berogailua paratuz.

Bertze aldetik, igande honetan, goizeko 9etatik arratsaldeko 7etara benjamin eta alebin mailako neska-mutikoen 18 talderen futbol partiduak ikusai izanen dira herriko futbol zelaian.

ERRETIRATUAK

### *Apirilaren 25ean Tafallara bidaia eta maiatzaren 5ean Ama eta Amatxien Eguna antolatu dute*

Apirilaren 25ean San Fermin jubilatu elkarteko kideek Tafallara bidaia eginen dute. Goizeko 8etan abiatuko da autobusa plazatik eta Tafallara heltzerakoan hiria bisitatu eta hameketakoa eginen da. Peralta, Andosilla eta Lerinen barna Iratxera joanen dira bazkaltzera. Menuan, Nafarroako zainzuriak, Tuterako kogolloak, marisko ensaladilla, piperrak, marisko kalderetea, bildots errea entsaladarekin, eta udaberriko tarta izanen dute, ardo, kafe eta koparekin bustiak. Gainera, denek opari bana jasoko dute eta dantzaldia izanen da animatzaileekin eta bingoa dohain. Txartelak 18 eurotan (3.000 pezeta) salgai izanen dira elkartearen ostatuan apirilaren 21a bitarte. Itzulerakoan Iruñean gelditukọ dira.

Bertzalde, maiatzaren 5ean ama eta amatxien eguna ospatuko dute jubilatuek, egoitzan eginen duten bazkariarekin. Sarrerako hotz eta beroak, salda, txuleta piperrekin eta kaiatua izanen dute jateko, edariz ongi hornitua. Txartelak 15,03 eurotan (2.500 pezeta) salgai izanen dira apirilaren 30a bitarte.

kixkur
Ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESAKA

IRU BIDE
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ANA
janaridenda
Bittiria 41 • ☎ 948 637518 • LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
✆ 948637573 • LESAKA

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

ETXALAR

# 40 Hektarea erre ziren martxoan Ausnarri eta Artzamena inguruan

Itziar Sansiñena eta Nagore Ansalas izanen dira igerilekuko arduradunak

**Joseba eta Nerea**

Martxoaren 13an ez zen egunero bezala ernatu Etxalarko herria, goiz-goizetik Azkua azpikaldea sutan ageri baitzen. Hain xuxen Ausnarri eta Artzamena inguruan 37-40 hektarea erre ziren, goizeko 8-8'30ak bitartean sua hiru lekutan bixtu baitzen. Segidan, udaleko langileak bertaratu ziren eta herria suteez ohartarazteko ezkilak ere jo ziren. Suhiltzaileak (Mugairikoak eta Lesakako boluntarioak) eta herritar bizkorki hurbildu ziren, baita zeladorea eta subzeladorea ere. Egun horretan zegoen haizego zakarrak ez zuen batere lagundu sua kontrolatzeko orduan, hainbat herritar arriskuan jarriz. Hala ere, denen artean arratsaldeko 18:00ak inguruan sua itzaltzea lortu zuten.



ARTXIBOKOA

**Martxoaren 13an biztutako sua itzaltzeko Mugairi eta Lesakako suhiltzaileak eta herritar aunitz bildu zen.**

Sute honek erre zituen lur-eremuak udalarenaz gain partikularrenak ere baziren. Horrela, bertzeak bertze Mendiondo, Maitto, Goia Etxeberria eta Oiarburuko plantazioak eta larreak kaltetuak ziren.

Miguel Mari Irigoien herriko alkateak aipatu digunez sua nahita emandakoa izan zela argi dago eta gainera *«sua eman zuenak ardurarik gabe jokatu zuen, egun horretan zebilen haizea zela eta, sute handiagoa izan baitzitekeen»*. Bertzalde, alkateak eskerrak eman nahi dizkie sua itzaltzen lagundu zuten udal langileei eta bildutako herritar guziei.

## Magra txapelketa

Martxoaren 17an akabatu zen urtarrilean hasi zen Larrabaruko magra txapelketa. Musean 14 bikote aritu ziren eta Kandido Egurce eta Antonio Ameztoi izan ziren urdaiazpikoa irabazi zutenak. Bigarrenak berriz Santiago Olasagasti eta Joxe Mari Berrueta gelditu ziren, besoaldea saritzat eskuratuz. Partxisean txapeldunak bakarrik eraman zuten saria, lehenago ere hainbat sari eskuratu duten Feliziana Zubietak eta Milagros Santestebanek. Martxoaren 23an partehartzaile guziek Larraburuan egin zuten afariarekin bukatu zuten sariketa.

## FLASH

### Altxataren batzar orokorra

Martxoaren 19an, San Jose egunean, egin zuen Altxata kultur elkarteak urteko batzarra. Gaien artean junta berritzearena egon zen eta hain zuzen hiru juntakide berri izanen ditu Altxatak: Iñaki Danboriena, Kontxi Ansorena eta Nerea Mitxeltorena. Hauekin batera, Mari Asun Olagaraik, Birjinia Arburuak, Arantxa Bizentek eta Ainara Arburua lehendakariak juntan segituko dute.

### Bataioak

Bazko igandean, ohitura den bezala, herriko haurren bataioak izan ziren. Aurtengoan hiru izan ziren, bi mutil eta neska bakarra: Bidaburuko Andoni Otxoteko Perugorria, Baratzeneko Pablo Leza Iturbide eta Arburuko Uxue Iturria Razkin.

### Igerilekuen ardura

Iazko udan bezala aurten ere Itziar Iriarte eta Nagore Ansalas arduratuko dira herriko igerilekuak eramateaz. Aurkeztutako eskaera bakarra bi etxalartar hauena izan zenez, udalak hauei eman die ekainaren 22an ireki eta irailaren 1ean itxiko diren igerilekuen ardura.


ETXALARKO HERRIKO OSTATUA
Ostatua eta jatetxea berriz ere zabalik!
✆ 948635450

ANSONEA jatetxea
Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia
Foruen Plaza 1 • ✆ 948 631155 • BERA

LEGARRA
Legarrea, 9 • ✆ 948 637 030 • LESAKA
IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU
• Liburuak
• Papertegia
• Tabakoa
• Plastifikazioak egiten ditugu
• FAX publikoa
• Enkuadernatzeak
• Inprenta lanak
Enkuadernatzeak espiralean ere egiten dira

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • ✆ 948630083 BERA

IGANTZI

# Mediku kontsultaren leku aldaketa bideratzen ari dela ematen du

Ibai Retegi, Iñaki Sein eta Imanol Goienetxek Belate Txapelketa irabazi dute

Oskar TXOPERENA

Oraindik egiaztapen ofizialik ailegatu ez bada ere, kontsularen afera bide onetik sartu dela ematen du. Hezkuntza Departamenduko arduradunek erran omen dutenez, kontsulta Barazarreara eramatearen aurrekontuaren %65a ordaintzeko prest omen leudeke. Kontutan izanda Barazarrea egokitzea 50.000 euro (8 milioi pezeta) inguru gostako dela eta oraingo kontsulta eskola emateko prestatzea, berriz, 12.000 euro (2 milioi pezeta), Herriko etxeari 21.000 euro (3,5 milioi pezeta) gostako zaio aldaketa eta Nafarroako Gobernuari 39.000 euro (6,5 milioi). Edozein moduz, zaila izanen da heldu den irailarako eskolak hainbertze behar duen lekua prestatzea.



Oskar TXOPERENA

**Aste Santuko aintzineko egunetan zenbait lan egin dira plaza inguruan. Eskola eta kontsulta aldera zihoan ur tuboa izugarri zaharra zen eta ur aunitz galtzen zen bertatik. Ondorioz, zolua altxatu eta berria paratu dute, eta, bidenabar, Herriko etxeko ataretik Txipiteneko atarera doaien tubo nagusia ere aldatu egin dute. Uraren arazoak bere horretan segitzen du, eta ez badu hurrengo hilabetetan euri aunitz egiten zaila izanen da aurtengo uda.**

### Belate Txapelketa

Negu partean jokatutako Belate Txapelketa irabazi dute Ibai Retegi, Iñaki Sein eta Imanol Retegi igantziarrak. Martxo ondar aldera jokatu zuten finala Zizur Nagusian Alberto Fagoaga eta Borja Iturriaren aranztarren aurka eta tantu bakar batez irabazi zuten partida.

Zizurko banakako txapelketan ere ederki aritu dira bertako pilotariak, Eneko Telletxea, Iker Sein eta Imanol Goienetxe batez ere. Orain, Bortzirietako Banakako Txapelketa, Herriarteko Txapelketa eta Doneztebekoa jokatzen ari dira gure pilotariak.

### Zuhaitz landaketa

Bizpahiru aldiz gibeleratu ondotik azkenean egin zen Igantziko Eskolak Guraso Elkartearekin batera antolatzen duen zuhaitz landaketa. Azkeneko urteetan bezalaxe Frain aldean egin da aurtengoa ere, Ziobi aldera doaien bidearen bazterrean. Eskolatik joandakoak eta laguntzera joan zirenak kontuan hartuta, ehun lagunetik goiti bertaratu zen.

ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.
• Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
• Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)
Igantziko Bentak • © 948 637 411 • Faxa: 948 637 313



EKAITZA
Hostala • Kafetegia
Gelak TB eta bainuarekin
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 LESAKA

BERA
DESINFECCIONES
© 948630155
BERA

## Herria ezagutuz



Oskar Txoperena

**Berrizaungo zubia.**

### *Berrizaun ala Igantziko Bentak?*

Behin baino gehiagotan entzundako galdera da hauxe: Berrizaun ala Igantziko Bentak erabiltzea da egokiago?

Izenen egokitasunaz bakoitzak izaten ahal duen iritzia hagitz subjetiboa eta errespetagarria izanda ere, ezin izanen dugu inolaz ere erran, zenbaitan aditzen den bezala, Berrizaun izena azken urteotako "modernitate" kutsuarengatik ezarri nahi izan den izena denik. Herriko etxeko artxiboko dokumentu zaharrenetan ere agertzen da Berrizaun. Hara 1688ko honek zer dioen: *«pagados ducientos reales por adrezar (arreglar) los caminos desde Sarrola hasta la puente de Puentte de Berriçaun».* Igantziko Bentak edo Ventas de Yanci, berriz, bertako fonda edo benta egin ondotik hasi zitzaion deitzen, 1851az geroztik hain zuzen ere. Egia da geroztik Berrizaun izenari protagonismo handia kendu egin ziola, dokumentoetan batez ere, baina, aipatutako arrazoiengatik guziz aproposa iduri du bere berreskurapena.

ARANTZA

# Bisitari aunitz ibili da herrian Aste Santuko oporretan

Aterpea, jatetxeak eta landetxeak beteak egon dira

Nerea ALTZURI

Urteak beti izaten ditu geldiune seinalatuak urte sasoi ezberdinetan. Horrela, neguan eguberriak-iñautik aitzaki hartuta ez-ohiko egunak tartekatzen dira. Uda eta udazkenean herrietako bestak eta orohar udako barkazioak izaten dira; eta udaberri hasieran Aste Santuko egunak. Pasatu berri dugu Aste Santuko asteburu luzea. Batzuk opor luzeagoak izan dituzte, ikasle eta irakasleek. Bertze batzuek elizkizunetan parte hartuz pasatu dituzte egun hauek. Baina, bada ohiko lanegun batean baino gogorrago lan egin duenik ere. Ostalaritzan ari direnek batez ere, egun mugituak izan dituzte. Joan den urtean bezala, aurten ere eguraldia giltza izan da herrian dauden ingurune menditsu eta ederrak bisitatzeko. Eta eskualdeko bertze xokoetan gertatu omen den moduan, iaz baino lagun gehiago hurbildu da herria ezagutu eta udaberriko pausaldia pasatzera. Itsasoa egunero bistan duten euskal herritarrek mendi giroa aukeratu dute: bermeotarrak, ondarrutarrak, zarauztarrak... izan dira oporrak pasatzen. Euskal Herritik kanpoko bisitariak ere izan dira: valentziarrak, madrildarrak, katalanak... Bertakoak ez dira normalean aunitz mugitzen Aste Santuan.



ARTXIBOKOA

Bortzak Bat Nekazaritza Koperatibaren egoitza.

### *Bortzak Bat elkartearen junta berritzea*

Martxo ardialdean urteko batzarra egin zuen Bortzak Bat nekazari koperatibak. Junta berritzea egin zen bilkuran eta horrelaxe osatua dago aurtengo arduradun taldea. Auzo bakoitzeko arduradun bana eta herriguneko ordezkari bat hartuz osatzen da sei laguneko junta. Usainekobordako Pablo Bergara izanen da Aientsa auzoko ordezkaria; Bordalarrean Aozmartinekobordako Agustin Etxebestek hartu du ardura. Ibarlako Antonio Bergara izanen da Azkilarreako arduraduna; Eguzkialdea auzoa handiena izanda, bi ordezkari izanen ditu: Joxe Inaxio Ubiria Arizpekoa eta Juan Mari Gonzalez Albizekoa; eta herri kaxkoko ordezkaria Jose Luis Iparragirre Erreneakoa. Ahobatezegiten da juntaren aukeraketa. Izan ere, txandaka-txandaka, guziei tokatzen baitzaie ardura hartzea, urte batean ez bada bertzean.

80 bazkide inguru ditu Bortzak Bat elkarteak eta zerbitzu ezberdinak eskaintzen dizkie abeltzain eta nekazariei: azienden pentsuak, olioa, esnea, ardoa, enbasatzailea eta berriki paratutako hotzgailua.

## Presoen aldeko mendi martxa

Presoen aldeko Bortzirietako mendi martxa martxoaren 23 eta 24an egin zen. Larunbatean, arratsaldeko 6ak aldera ailegatu ziren ibiltariak herriko plazara. Herritar koadrila batekin, bertako trikitilari eta panderojoleen animazioarenpean karrika bueltaegin zuten, «Utzi pakean Euskal Herria» leloa aldarrikatuz. Ilunabarrean Ekaitza elkartean afaldu zuten eta Torturaren Kontrako Taldeko kide baten ahotik, solasaldia izan zuten afalondoan. Biharamon goizean Igantziruntz abiatu ziren martxistak.

ola
SAGARDOTEGIA
250 lagun eserita
Klimatizatua
102 Meaka auzoa
20304 IRUN
Tel.: 943 623 130

TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA
Eguzkitik babestekoak (elektriko edo eskuzkoak) • Toldo mugikorrak • Igerilekuetako sareak • Kamioentzako toldoak • Estutzeko uhalak • Aluminio, PVC, Egurra eta Seguridadekoak • Motorizatuak pertsianak altxatu eta jausteko • Kontraleihoak • Estoreak • Eulien kontrakoak...

☎ 948 63 10 03
Fax: 948 63 10 03
Alkaiaga Ind.•Baldrun, 8 • LESAKA - BERA

PERTSIANAK
ERA GUZIETAKOAK, MOTORIZATUAK, ESTOREAK

KOXKILA OSTATUA

Zarandia, 4 - LESAKA

DONEZTEBE

# Nafarroako Bertsolari txapelketaren finala Bordatxon jokatuko da igande arratsaldean

## Eskola inguruan trafikoa arazoak moldatzeko bitartekoak jarriko dira

**ttipi-ttapa**

Igande honetan, apirilak 14, arratsaldeko 5etatik aitzinera Nafarroako Bertsolari txapelketaren finala jokatuko da Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan.

Lerro hauek idazterakoan, bertsolari bakarrak lortua zuen finalerako txartela, Sustrai Colina urruñarrak. Saran jokatutako finalerdian bera izan zen nagusi. Sailkapena eta puntuazioa: Sustrai Colina (563), Estitxu Arozena (541), Juan Mari Lopez (511), Iñigo Ibarra (488,5), Aritz Saragueta (488,5), Txomin Ezponda (481).



ARTXIBOKOA

**Bittor Elizagoien arraioztarrak ez du hutsik egin azken urteotako finaletan. Igandean Bidarrain aritzekoa zen aurtengo finaleko txartelaren bila.**

Aste hondar honetan jokatu dira bertze bi finalerdiak Burlata eta Bidarrain. Bi saio hauetako bakoitzean lehendabiziko sailkatua eta hiru finalerdietan puntuaziorik altuena lortu duten bortz bertsolariek osatuko dute finaleko zortzikotea. Larunbatean Burlatan Xabier Silveira, Xabier Legarreta, Joxe Juan Zubieta «Etxabe», Oskar Estanga, Egoitz Zelaia eta Eneritz Zabaleta aritzekoak ziren. Igandean Bidarrain, berriz, Amets Arzallus, Bittor Elizagoien, Iñigo Olaetxea, Mikel Altzuart, Ernest Alkat eta Xanti Iparragirre. Bistan denez, ez zen xamurra izanen finalerako sailkatzea.

### *Eskola inguruko trafikoa arautu nahi da*

Doneztebe eskola inguruan, ikasleak sartzeko eta ateratzeko orduetan batez ere, sortzen diren trafiko gorabeherak moldatzen saiatzeko eskutitza igorri zaie gurasoei. Haur eta Lehen Hezkuntzako San Migel ikastetxeko eta DBHko Mendaur Insitutuko zuzendariek, Guraso Elkarteak eta Doneztebeko Udalak sinatu dute idatzia. Eskolan sartu eta ateratzeko tenoretan ezin dela bigarren lerroan, debekatutako lekuetan edo oinezkoen pasabideetan autorik ezin dela utzi oroitarazten da idatzian. Ikasleek bidea gurutzatzeko lehentasuna dutela eta eskola ingurutik igarotzerakoan abiadura moteltzea eta oinezkoen pasabideak errespetatzea eskatzen da. Hain oinarrizko gauzak gurasoei oroitarazi beharra gezurra badirudi ere, honela dago afera.

Istilu honen ondorioz, Foruzaingoak zaintza berezia eginen du eskola inguruan eta araudia errespetatzen ez dutenei isunak ezarriko dizkie. Bidenabarkoan, gidariek gerrikoa jarria dutela edo haurrak gibeleko jarlekuetan daudela ere begiratuko dute. Idatziaren sinatzaileen erranetan, isunik eta auto pilaketarik ez izateko guzien ardura nahitaezkoa da, ikasleen onerako dela kontuan hartuz, batez ere.

### *Antzerkia*

Arte eta Kultura 2002 ekitaldien barnean «Alizia bitxikerien lurraldean» antzezlana ikusgai izan zen larunbatean zineman.

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17
BERA
✆ 948 630 763

PIKABEA pinturak
Molinero drogerian galdetu
*Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu*
- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean
Izpoz 8 • ✆ 948 630240 - 948 631495 • BERA






BERTIZARANA



NARBARTEKO ESKOLAK UTZIA
Mikel Goñi pilotaria Narbarteko eskolako ikasle eta irakasleekin batera. Beheitian, neska-mutikoek luzatutako galderak erantzuten.

# Mikel Goñi pilotariari elkarrizketa egin diote Narbarteko eskolakoek

## Eskuz banakakoan finalerdietan sartu nahi du oronoztarrak

ttipi-ttapa

Narbarteko eskolako ikasleek elkarrizketa egin zioten Mikel Goñi pilotari oronoztarrari, *«bere bizitzari eta pilota munduari buruz»* gehiago jakiteko. Neska-mutikoen galdeketa irakasleak bideoan grabatu zuen. Aurkezpenean ikasleek aipatu zutenez, *«Mikel da inguru honetako pilotaririk mirestuena eta lesio batetik ateri berria da»*. Bere bizitza pertsonalari dagokionez, ezkontza bizitza aldatu dion esperientzia berria dela eta seme bat maiatzerako espero duela adierazi zien kazetari gaztetxoei Goñik. Semeari pilotan erakutsiko dion galdetzerakoan, *«beno hori berak ikusi beharko du, ez dakit, berak nahi duena, berak nahi baldin badu lagunduko diot»* erantzun zuen Goñik. Logroñora bizitzera joateko arrazoiari dagokionez, oronoztarrak *«ni ibili nintzen 4 bat urte Iruñan bizitzen eta han ez zen deportistaren bizitza aproposa egiteko leku bat, ni ia eguneroj juergan ibiltzen nintzen eta hori ez da modua»* onartu zuen. Pilotaririk mirestuena Julian Retegi izan da Goñirentzat, *«beste askorentzat bezala»*. Lesioen ondorioz manomanista ongi prestatzeko modurik ez omen du izan eta *«orain sufritzea»* tokatzen zaio. Halere, denek omen dute irabazteko aukera: *«Hor dauden guztiak aukera badaukegu. Batzuk beste batzuk baino gehigo, baina bueno ikusiko dugu aurten behinik behin txapelketa ona egiten badut, gustatuko litzaidake semifinaletan sartzea»*.



**• Nolakoa zinen gure adina zenuenean?**
Erraten didatenez benpinen franko bihurria, ez?, zuek ere hala izanen zarete, franko bihurriak, ez?.

**• Zein eskolan ikasi zenuen?**
Oronozko eskola publikoan hasi nintzen, 10 edo 15 bat "kintakoak" ginen.

**• Ikasle ona al zinen?**
Ikasle ona? ez inoiz ez naiz ikasle ona izan.

**• Inguruko jendeak erran digute nahiz eta jenio bizia izan bihotz onekoa zarela, egia al da?**
Hori nik ez dut esan behar, bai genio txarra badutela ba bai ez, frontoian batipat baina gero kanpoan uste dut jendearekin ongi portatzen ari naizela.

**• Egunean zenbat denbora entrenatzen duzu?**
Depende, orain gabiltza goizetan bi edo hiru ordu eta arratsaldetan beste bi edo hiru ordu.

**• Entrenatzeaz gain zure gorputza zaintzen al duzu?**
Orain erregimena jarri didate eta orain bai, zeozer bai.

**• Norekin hasi zinen pilotan?**
8 urterekin etorri zitzaigun eskolara Juanjo Atxa ea nahi genuen pilota txapelketa batean apuntatu eta ia klaseko denok apuntatu ginen, eta lehenengo txapelketa jokatu nuena Santi Saezekin izandu zen.

**• Zenbat txapel lortu dituzu?**
Profesional mailan izandu dire Torneo batzuk, 4 edo 5 bat, eta gero ba infantiletan eta alebinetan eta horrela, etxean daudenak 95 bat seguraski.

EZKURRA

# Espedientea zabaldu zaio Iberdrolari kanalaren leherketak egindako kalteengatik

## Kanal azpian dagoen pista hondatu eta zuhaitz batzuk lurreratu zituen urak

Pelo ZESTAU

Orain dela ale batzuk komentatu genuen bezala, Iberdrola enpresak Ezkurrako terrenoan duen zentralera doan kanala, lehertu egin zen azaroaren 23an eta horren ondorioz kalte batzuk izandu ziren kanala azpian dagoen pista batean eta baita ere zuhaitz batzuk lurrera erori ziren. Gertatu zena ikusita, Iberdrolak pista berri bat ireki zuen ur kanala arreglatzeko eta urak izorratu zuen pista ere arreglatu zuen.

Ondoren, bilera bat izandu zen Nafarroako Gobernuko ordezkarien, Iberdrola enpresako agintarien eta Ezkurrako Udalaren artean. Denak hitz onak izandu ziren, eta arazoa zuzentzeko prest agertu zen enpresa, baina orain arte ez du erantzunik eman.

Orain, Ingurumen Departamentuak, espedientea ireki dio Iberdrolari eta 13.363,78 euroko (2.223.546 pezeta) zigorra ezarri dio enpresari.



DIARIO DE NAVARRA

**Joan den urteko azaroaren 23an urak gainezka egin zuenean hainbat zuhaitz lurrera bota zituen.**

### *Herritarrak areto futbol txapelketan*

Baztan Bidasoako areto-futbol txapelketan, Ezkurrako "Basakaitz" taldea ezin hobe hasi zen. Lehenbiziko bi partiduak irabazi zituen, joku bikaina erakutsiz. Baina hurrengo lauak galdu egin ditu. Igande honetan lehendabiziko faseko azken partidan lortutako emaitzaren arabera izanen du final zortzirenetan sartzeko aukerarik.

### *Etxe berria*

Gipuzkoa aldetik etorri den Beñatek etxe berri bat eraiki du Ezkurran. Jendeak esaten duenez, oso pareta ederrak egin dizkio, eta lurrikara handiena ere ez omen du sumatuko etxeak. Orain falta zaio Beñati emazte bat hartu eta etxea dozena erdi bat seme-alabez betetzea.


BEINTZAko OSTATUA
✆ 948 450 014
BEINTZA-LABAYEN

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia



APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
• Melamina taulak
• Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
• Txapaz estalitako taulak
• Entzimerak
• Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
• Pintura eta bernizak
• Bainurako mobleak eta osagarriak
• KIT mobleak, esku-erremintak, etab...
Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

MALDAERREKA, S.L.
FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBE BEILATOKIA
Bortziriak eta Malerrekan
24 orduko zerbitzua beilatokian
eta etxean prezio guzietan
Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo
ospitaletatik edozein herrietara
✆ 948 637404
✆ 900 704704

GOIZUETA

# Xapo aldizkariaren lehen alea argitaratu da

## Eskolako liburutegiari Goxali izena jarri diote




**Esteban AROTZENA**

Udal Euskara Zerbitzuaren eta gazte talde baten elkarlanari esker Xapo izenaz bataiatutako aldizkaria argitaratu eta banatu berri dute herrian.

Bertako musika taldeei eta bertso eskolari buruzko erreportaiez, iritzi artikuluez, denborapasaz, eta abarrez ederki aski hornituak azaltzen dira Xaporen 28 orrialdeak, euskara goxo eta ulerterrazez idatziak guztiak. Ekimen honen bultzatzaileek esan digutenez, aldizkaria ez da lehen zenbakian geldituko, gutxienez urtean ale bat kaleratzeko asmoa baitute.

### Goxali liburutegia

Eskolan martxan paratu duten liburutegiari buruzko berriak ttipi-ttapako beste aleren batean emanen dira luze eta zabal. Oraingoan bakarrik esan zein izen izanen duen erabakitzeko ikasleen arteko lehiaketa egin zela, eta Lehen Hezkuntzako bigarren mailako Xabier Apezetxeak asmatutakoa hautatu zutela azkenean, Goxali (GOizuetako XAlto LIburutegia) hain zuzen. Guraso Elkarteko presidentea den Maite Loiartek opari bat eman zion horregatik.

### Apirila ekitaldiz gainezka

Apirilaren asteburu gehienak bere esku hartu ditu Umore Ona elkarteak. Larunbat honetan kantu afaria izanen da, eta hurrengo bietan, 20an eta 27an alegia, urteroko mus eta trukeko txapelketak eginen dira.



**Goxali liburutegia**
**Maite Loiarte Guraso elkarteko presidentea, liburutegiarentzat Goxali izena asmatu duen Xabier Apezetxeari oparia ematen.**

ARGAZKIAK:
ESTEBAN AROTZENA



**Aberri Eguna**
**Plazan egin zen kontzentrazio batekin ospatu zen herrian Aberri Eguna, 40 lagun inguru elkartu zirelarik bertan.**

Okindegia Jatetxea
Uxoa
☛ Okindegian
• Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
☛ Jatetxean
• Menua eta karta (asteburuetan)
• Espezialitate parrilan erretako jakietan



Enkargatuz gero,
bildotsa ogi-labean errea.
Goxo-goxoa!

MEDIKUNTZA NATURALA
NATUROPATIA
ONDORIOETATIK INDARTZEKO:
• Diabetia • Asma • Buruko mina • Oinen izerdia
• Larru azaleko alergia • Ziatreak • Prostata, etab...
IKUSMENAREN BERRESKURATZEA
• Miopia
• Bista alfertua
• Estrabismoa
• Begi lausoak-kataratak
GIHARRE ARAZOAK
• Bizkortzea
• Artritia, erreuma
• Artrosia, Lunbalgia
• Bihurdurak, etab...
KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 3-7etara. Ordua eskatu
San Marcial, 7-4 IRUN

BEINTZA-LABAIEN - ERATSUN - SALDIAS

# Hiru eskolako ikasle eta irakasleek Urrutiña aldizkaria plazaratu dute

Euskaraz, gazteleraz eta ingelesez egindako artikuluak ditu 48 orritan

ttipi-ttapa

Eratsun, Saldias eta Beintza-Labaiengo eskoletako ikasle eta irakasleek prestatutako «Urrutiña» aldizkariaren lehen alea plazatu da. Orain arte, eskola bakoitzak bere aldizkaritxoa prestatzen zuen, baina oraingoan hiru eskolak elkartu eta lan mardulagoa egin dute, 48 orrikoa, kolorez eta edukiz ederki hornitua.

Eratsungo Ibai, Gaizka, Mikel, Olaia, Juan Mari, Irantzu, Alazne, Yesika eta Xabier; Beintza-Labaiengo Arantxa, Ana, Izaskun, Maite, Lierni, Ainhoa, Jaime, Aitor, Migel Mari, Joana eta Sonia; eta Saldiasko Endika, Goretti, Mireia, Aritz eta Asier ikasleak, Bittorio, Ainhoa, Maitane, Mikel, Mixel, Yolanda, Arantxa eta Ana irakasleak arduratu dira argitalpeneko edukietaz. Gehien bat euskaraz idatzia da, baina badira gazteleraz eta ingelesez idatzitako artikuluak ere.

Zailena egin dute, lehendabizikoa atera, orain hurrengoaren esperoan gelditzen gara.




**Urrutiñaren azala, prestatzen parte hartu dutenen argazkiarekin.**

ARESO

# Industrialdean hiru enpresa berri finkatu dira sei hilabetetan

Bi lantegitan herriko langileak kontratatu nahi dituzte

Juana Mari SAIZAR

Sei hilabetetik honera herriko industrialdean hiru enpresa finkatu dira: M.Elatz, S.L., Burnilan eta Alpa Aluminio, eta beste bik errentan hartu dituzte bi pabilioi. Hauetako bi enpresek langileak behar dituzte, herrikoak ahal balitz. Udaletxean informazio gehiago.

### *Aste Santuko ekitaldiak*

Aste Santuko oporretan herriko umeak eguraldi onaz gozatu dute, frontoian raketarekin jolastuz, baita bideo emanaldiak eta xake ikastaroak eginez. Eskolako gimnasioan egin dira, Guraso Elkarteak antolatuta.



JUANA MARI SAIZAR

**Larunbat Santuko emakumeen afaria ohitura bihurtu da herrian. Argazki honek 15-16 urte ditu.**

### *Bake epailea*

Bake epailea izateko epea zabaldu du Udalak. Maiatzaren 4a arte zabalik dago izena emateko epea.

### *Aberri Eguna*

Beste urte batez Bazko Igande eguerdian Aberri Eguna. Trikitixa, panderojoleak eta dantzariek ikurriñari omenaldia egin zioten. Gero kalejira egin zuten.

LEITZA

# Iaz baino ikusle gehixeago izan dira aurtengo zinema denboraldian

1.809 lagunek ikusi dituzte eskainitako hogeita bi filmeak

Mikel ILLARREGI

«Amélie» filmarekin bukatu da aurtengo zine denboraldia. Balantze egiterakoan, egia esanik, nahiz eta zertxobait hobetu, ezin daiteke oso baikor izan. Guztira 1.809 pertsona izan dira ikusle eskeini diren 22 pelikuletan. Bataz bestekoa eginez, laurogeita bi pertsona pelikula bakoitzeko, baina bi sesiotan, ostirala eta igandekoa. Hala ere, iazko denboraldia eta aurtengoa alderatuz, kopurua handitu dela nabarmendu behar da, iaz bataz bestekoa hirurogeita hamabi pertsona baitzen.




Argz. ILLARREGI

«Maxurrenea herrintzat!» lelopean mila lagun bildu ziren herriko kaleetan barrena egindako manifestazioan.

Kopururik handiena izan duen filma «Shrek» izan da, berrehun lagun baitziren. Gutxien izan dutenak berriz: «Kementsu», «El destino» eta «Ghost World», hauetan hogeita hamarna lagun. Hobekuntza izan arren, lastima da zerbitzu hau erabiltzen dena baino erabilera handiagorik ez izatea, aukera ezin hobea baita hiriburutan ikus daitezkeen filmak herrian bertan ikus ahal izateko. Pelikula bakoitzaren kostua 480 euro ingurukoa da eta sarreraren prezioa, berriz, 3 euro. Oraindik orain, diru kontuak egin gabe daudela, esan daiteke sarrerekin erdia besterik ez dela betetzen, aurtengo denboraldiko aurrekontua 10.000 eurokoa izan delarik, gutxi gora behera. Lau taldetan banaturik aritzen dira hamabost bat lagun bolondres moduan astero txandak eginez. Hauek diotenez, batzutan zailtasuna izaten dute punta puntako pelikulak ekartzeko, orduantxe zine areto nagusienetan eskaintzen ari direlako. Halere, kopiak gero eta hobeak dira. Hurrengo denboraldia urruti xamar gelditzen den arren, ikusleen kopurua gehitzea da antolatzaileen erronka.

ELKARTASUNA

### *Herriko sei familiako hamalau lagun Saharan zan dira martxoaren 27tik 31ra*

Apirilaren 27tik 31ra herritik Saharako kanpamenduetara sei familiako hamalau lagun joan dira uda garaian beraien etxeetan izandako gaztetxoak ikustera eta bertako egoera ezagutzera. Bi familia Esmara-n, beste hiru Auserd-en eta bestea El Aaiun-en izan dira. Tindouf-en hegazkinetik jeitsi eta bakoitza bere kanpamendura, familiarrekin une ezezagun, goxo, harrigarri eta ahaztezinak bizitzera. Esperientzi honetatik, besteak beste, garbi jaso dute laguntza ezinbestekoa ematea dela. Dena den, eta edozein laguntzarekin batera, guk «beraien mundua» ezagutzea oso garrantzitsutzat jotzen dute bertakoek, horrela «laguntza morala» jasotzen baitute. Egun, munduan konflikto asko dago eta, horregatik, kanpotik kanpamendu hauetara bidaltzen den laguntza eskasagoa da, eta hauetaz bizi dira bertan daudenak.

Honekin lotuta dago apirilaren 13an Sahararen alde eginen den jaialdia. Herriko abeslariek hartuko dute parte bertan.

FLASH

### *Haurtzaindegian izena emateko epea*

Alkatetzaren ebazpenaren bidez jakinarazten da haurtzaindegirako haurren izena emateko epea apirilaren 9an irekiko dela eta 30ean bukatu. Honekin batera adierazten da ikasturtea irailean hasiko dela eta hilero 57,10 euro ordaindu beharko dela. Izena emateko haurtzaindegira bertara joan behar da.

### *Oihan enkantea*

Udalak, plegu itxiaren bidezko enkante publikoan jartzen du salgai Urdiñola aldeko oihan lotea. Lota bakarra da eta arbol desberdinetako 1.937 ale, egurrean 1.647 metro kubikoz eta enbor txikian 19 metro kubikoz oraturikoa. Hasierako prezioa 56.325,29 eurokoa da. Proposamenak aurkezteko epea apirilaren 26an bukatuko da, eguerdiko hamabiak baino lehen.

### *Euskal Herriak bere eskola*

Euskal Herriak bere eskola kanpainarekin bat eginez, herriko ikasle, irakasle eta guraso taldeak jaialdi-egunpasa antolatu zuten. Areso eta Goizuetako umeak ere bertan izan ziren.

### *Maxurrenea*

Joan den astean, Nafarroako Gobernuko erregistroan Maxurrenea berreskuratzeko asmotan herrian bildutako 1.564 sinadura sartu ziren. Gogoratu behar da «Maxurrenea herrintzat» lelopean mila lagun bildu zituen manifestazioa ere egin zela Maxurrenean hasi eta herriko kaleak igaroz.

BAZTAN

# Nafarroaren Egunean, 12 Ordu Eskuarazek antzerkia eginen du

Iaz bitan egin zen antzezlana ikusteko aukera izanen da Baigorrin

Rakel GOÑI

12 Ordu Eskuaraz egunean ez da Elizondon antzerki emanaldirik izanen. Arazo ekonomikoak direla eta, besta ospatzea erabaki den arren, ezingo da antzezlanik ikusi. Horren ordez "12 ordu eskuaraz" elkarteak Baigorrin ospatuko den Nafarroaren Egunean, apirilaren 28an, iazko antzezlana aurkeztea erabaki du. "Agottaneko andrea" lana arratsaldeko 5etan hasiko da ezker paretako frontoiaren inguruan. Baztango aktoreak Baigorrikoekin arituko dira antzerkian. Norbaitek extra moduan parte hartzeko gogoa baldin badu, nahikoa izanen da antolatzaileengana zuzentzea. Aitzineko egunean, larunbat arratsaldean, dantza ikuskizuna izanen da Baigorrin bertan. Tutera, Baigorri eta Baztango Dantzariek garai batean dantzatzen zen moduan, eginen dute emankizuna. Ertaroko jantziekin arituko dira, eta soinua Txirimia instrumentuekin joko da.



FELIX MENA

2000. urtean egindako antzezpeneko partaide batzuk.

### 12 ordu lasterka maiatzaren 1ean

Maiatzaren 1ean, asteazkenarekin, "12 ordu lasterka" ekitaldia eginen da. Aurten aldaketa nabariekin dator egun hau, lasterketa Baztango herrietan barrena eginen delako, eskuararen alde. Horretarako herri bakoitzean arduradunak bilatzen ari da "12 ordu eskuaraz" elkartea.

### Margo erakusketa

Apirilaren bigarren hamabortzaldian Arizkunenea Kultur etxean, erakusketa gelan, emakumezkoen margo erakusketa izanen da ohiko ordutegietan. Ekitaldia 12 Ordu Eskuaraz elkarteak bultzatu du.



RAKEL GOÑI

Iruritako Aranabia antzerki taldeak bi emanaldi eskaini zituen martxoan Elizondoko elizaren aretoan.

FLASH

### 460 bisitari Lameriñasen erakusketan

Maiatzaren 28tik apirilaren 1era Baztan Ikastolan egin zen argazki erakusketan 460 bisitari izan ziren. Juanito Lameriñasen argazkiak ziren ikusgai eta ikus daitekeenez erakusketa arrakastatsua izan da. Salmenten zati bat Gurasoen Elkartea laguntzeko izan da.

### Larrain-Karrike eta Iriarteko Arteka

Baztango Udalak erabakitakoaren arabera, Arizkungo Larrain-Karrike eta Iriarteko-Artekan ezin da kotxerik aparkatu. Debekua Argañearen ondoan dagoen etxolatik, Larrañearaino ailegatzen da. Iriarteko Arteka osoan ere ezingo da aparkatu eta hortako seinaleak jarri dituzte jadanik.


BAZTAN FUNERARIA
Mateo Lertxundi
TANATORIO ZERBITZUAK
Hilkutxen Erakusketa eta Salmenta
Ehorzketa Zerbitzuak • Trasladoak
Pedro Axular, 6 • ELIZONDO
• ✆ 948 580373 • 608 776176



BAZTAN

# Arizkungo eskolaren egoera kaxkarra salatu zuten gurasoek

## Errefortzuak lehenbailehen paratzea gomendatu zuen inspektoreak

Rakel GOÑI

Arizkungo eskolaren egoera kaxkarra salatu du azkeneko hilabetean, Gurasoen Elkarteak. Zartadurak nabariak dira eskolako paretetan eta Nafarroako Gobernuko teknikari batek egindako informearen arabera, egoitzan ahalik eta lasterren errefortzuak patzea gomendatzen da. Antza denez eskola konpontzeko lanak adjudikatzeko prozesua martxan jarri zuen udalak, baina ez zen eskaintzarik egon. Gurasoak oraindik kezkatuta daude eta ahalik eta lasterren konponbide bat ematea nahi dute. Euren ustez eskola ttalla izateagatik eskubide guttiago dituzte handiekin alderatuz. Arizkungo eskola udarako konpontzen hasten ez badira, gurasoek ez dituzte haurrak eskolara eramanen.



Arizkungo eskolan zartadurak nabariak dira paretetan

RAKEL GOÑI

### Ostatua eta Tturri-Xarra

Arizkungo plazaren ondoan dagoen Herriko Ostatua konpontzen hasi dira auzolanean. Aste Santuko oporretan hasi ziren eta martxa ederrean doazi lanak, hainbat herritar hurbildu delako laguntzera. Teilatuan moldaketa lanak egin ondotik, orain fatxadari tokatu zaio aurpegia garbitzea. Gerora begira leihoak konpontzea aurrikusi dute.

Era berean, Kante Etxearen parean dagoen Tturri-Xarra konpontzen hasi dira. Teilatua erabat aldatuko dute. Aspaldi lurraz estali zituzten eskailerak agerian utzi nahi dituzte. Etxolaren parean zegoen zuhaitza bota dute sobera handitu delako. Oraindik ere Arizkundar aunitz doaie egunero tturritik ura hartzera.



BAZTAN IKASTOLA

Martxoaren 10ean Baztan Ikastolak zuhaitzaren eguna ospatu zuen, Ermitegin 100 haritz landatuz.

FLASH

### Garapenerako Plan Estrategikoa

Baztango Udala, Cederna Garalur eta LKS Consultores-ekin batera Baztango Garapenerako Plan Estrategikoa egiten ari da. Horretarako apirilaren 9an bilera bat egin zen Baztango Udalean Kontseilu Orokor bat eratzeko. Bilerara, Federiko Etxenike, Alejandro Galarregi, Luis Mari Iturria, Miguel Arretxea, Irune Santsiñena, Irantzu Izeta, Cristobal Urrutia, Mirentxu Goienetxe eta Joxe Urroz deitu zituzten. Udaletik Patxiko Oiartzabal alkatea, Rafa Olaizola, Leopoldo Jaen eta Mikel Altzuart izan ziren. Bileran Plan Estrategikoaren helburuak aurkeztu zituzten, proiektuaren egoera aztertu zen eta jarraitu beharreko metodologiaz solastu zen.

JATETXEA
✆ 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

MENDI
OSTATUA
Santiago 25 - ✆ 948 580313
ELIZONDO

BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia
• Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
• Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
• Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak
121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatua
Aseguru orokorrak
✆ 948581468 • 948580433
Frantziarako etorb. 12 •
Ameztialde 3B • ELBETE



BERTIZ

# Ostaitz enpresa arduratuko da Bertizko Natur Parkearen gestioaz

## Lesaka, Legasa eta Iruñeko lau emakumek hartu dute ardura

Rakel GOÑI

Aiansoro enpresak martxoan Bertizko Parkearen erabilera publikoaren kudeaketa utzi ondotik, Ostaitz enpresa da lan hontaz hemendik aitzin arduratuko dena. Enara Larralde lesakarra, Nerea Ezkurra iruindarra, Monika Migeltorena eta Josune Ibarra legasarrak dira orain Bertizko Parkearen arduradunak. Gestion Ambiental Viveros y Repoblacionesek hautatu ditu eta 2005. urterarte izanen dute kontratua. Parkea gestionatzeaz gain, orain ere Turismo Bulegoa euren ardurapean izanen da. Ilusio handiarekin hasi dute lana lau gazteek, denetara 7 langile izanen dituzte euren menpe. *«Lehenengo egunak gogorrak izan dira San Joseren zubia eta Aste Santua tokatu zaigulako, momentuz lana zein den ikasiko dugu eta ondotik helburuak finkatuko ditugu»* aipatu digu Enara Larraldek. Lau emakume hauek gazteak dira, 24 eta 28 urte artekoak, baina lehendik ere, parkeko langileak izan dira, beraz ez zaie esperientziarik falta.



Artxiboa

**Ostaitz enpresak 2005. urtera arteko kontratua izanen du Bertizko Natur Parkea gestionatzeko.**

LANA

## 606 langabetu Doneztebeko INEMen

Martxoan 606 lagunek emana zuten izena Doneztebeko INEMen, otsailean baino 31 guttiago. Langabetuen adinari dagokionez, 25 urtez beheitiko 42 gizaseme eta 46 emakume eta 25 urtez goitiko 211 gizon eta 307 emakume zeuden langabezian martxoan. Sektoreka, zerbitzuetan 329 langabetu, industrian 181, eraikuntzan 42 eta nekazaritzan 7 langabetu zeuden, aitzinetik lanik egin gabeko 47 langabetuekin batera.

Joan den hilabetean 327 kontratu egin ziren eskualdean, horietatik 52 mugagabeak.


OKANE
HARATEGIA · URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 • BERA


LARRALDEA
SAGARDOTEGIA
Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua
Telleria Auzoa • LEKAROZ
© 948 452121


Elementines
Guzia zure umearentzat
Arrue, Quinny, Maxi-Cosi, Red Castle, Tuc-Tuc, Baby Björn, Avent, etab..
Zubiaurre 3 (Renfetik hurbil) • IRUN


J. RAMOS
Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut
© 948631342 BERA


PAGOLA
TXISTORRAREN IZENA
© 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA

ZUGARRAMURDI

# Eskual Titiriteroen IV. Topaketa eginen da aste hondar honetan

## Larunbat eta igandez hainbat talderen emanaldiak ikusgai izanen dira

**Margari eta Koro**

Kisulabe elkarteak Mikel eta Estefaren oroimenez laugarren aldiz antolatu duen Eskual Titiriteroen Topaketa ospatuko da Zugarramurdin apirilaren 13 eta 14an, ekitaldiz gainezka.



ARTXIBOKOA

**Estefa eta Mikelen oroimenez egiten da Titiriteroen Topaketa. Argazkian, beraiek sortutako txotxongilo famatuenekin ageri dira.**

Larunbat eguerdian Akelarrenean Azika taldeak emanen dio hasiera Topaketari «Kontu Konta Zan» antzezlanarekin. 16:00etan Kixka taldeak «Bola Luma» antzezlana emanen du herriko eskolan. 17:00etan Gargantuaren «Moviendo marionetas. Ranas» antzezlana ikusgai izanen da plazan. 17:30etan El Tenderete taldeak «La Milonga« antzezlana eskainiko du eskolan. 18:30etan Taupada taldeak «Mari Sorgin» antzezlana taularatuko du Akelarrenean. 20:00etan «Muga mundu» Behi Bi's taldearen antzezlana ikusgai izanen da eskolan. Egun osoan karrika animazioa izanen da Tolosako Batukadarekin eta Goloka taldearen «Hezurdurak» herriko plazan eta karriketan. Gauez Txotxongilo Besta izanen da Kisulaben.

### Igandean antzerkia eta bazkalondoan Ruper Ordorika

Igande goizeko 11:00etan, «A, E, I, O, U» haurrendako antzezlana izanen da eskolan, Deabru Beltzak taldeak emanik. 12:00etan, Bihar taldearen «Kli Kla Birzikla» antzezlana ikusgai izanen da herriko plazan. 13:00etan Kukubiltxo taldeak «Ekidazu, lehoiek ez dakite bibolina jotzen» antzezlana berria eskainiko du pilotalekuan. Ondotik, aperitifa Ezpeletako txarangarekin herriko ostatuetan. 14:30etan bazkaria izanen da Azketan eta 18:00etan Ruper Ordorikaren kantaldia Akelarrenean.

Asteburu osoan Centro de Titeresen afixa eta panpinen erakusketa eta salmenta izanen da eskolan.

## Herriko zerriak Basatxerri markarekin salgai

Otsailean Euskal herriko 70 harategietan "basatxerri" markapean zerri haragi berezia saltzen hasi dire. Haragi hunen berezitasuna zerriak mendian libro hazi direla da, eta horrekin batera beren janaria iratze, larra, gaztain, belar eta halakoak izan direla (arto, baba eta garagar pentsu suplemento batekin). Afera hau martxan jarri dutenak 15 baserri izan dira Txerrizaleok Elkartea osatuz. Zerriak Zugarramurdin erosten dituzte, Ipar alde zerritegian, bi hilabete terdirekin, eta bertze bortz hilabetez hazi ondotik, 150 kilorekin hiltzen dituzte (industrialki haziak baino handixeagoak). Haragia ilunagoa da eta urinan ere diferentzia sumatzen da, zerri iberikoen antza pittat omen du. Prezioa ere garestixeagoa da.

Kataluniako animaleen babesle elkarte batek zoriondu omen du Txerrizaleok Elkartea animaliak libro eta janari naturalekin hazitzeagatik.







SARA

# Herriko Etxeko edantegiko mus txapelketaren finalak jokatu ziren

34 bikote bildu dira ortziralero, martxoaren 24an bukatutako lehiaketan

**Aña Mari eta Fred**

Herriko Etxeko Edantegiko mus lehiaketaren finalak martxoaren 9an jokatu ziren. 34 bikote ortziralero aritu dira eta finalak hiru mailetan jokatu ziren.

Goi mailan, xapeldun Xabier Tapia eta Jean Mixel Irazoki. Bikote hunek 4 presunentzat 8 eguneko egonaldia Salou herrian irabazi du. Xapeldun ordeak Jean Marie Pradère eta Kako Goietxe. Hirugarren, Philippe Lasaga eta Marie Pierre Iribarren, laugarren Bruno Martin eta Claude Etxegarai.

Bigarren mailan, Mixel Etxeberri eta Jean Marc Aspirot xapeldunek bildotsa izan zuten sari gisa. Bigarren postuan Frederik Barrenetxe eta Mikael Vella utziz.

Hirugarren mailan, Serge Bats eta François Matxikote irabazle, bigarren Paxkal Etxegarai eta Sylvie Jubera.

Sari banaketaren ondotik muszaleek bildots errea jan zuten, bazkaria eta ondoko oren luzeak giro ezin hobean burutu ziren kantuan, musean eta dantzan.



HERRIKO ETXEKO EDANTEGIAK UTZIA

**Mus txapelketaren irabazleak. Maixan eta Veroniqueren artean Pettan Elizalde zikiro erretzailea.**

### *Beti Gazteren biltzar nagusia*

Martxoaren 20an Beti Gazteko lagunak Pullman jatetxean bildu ziren, urteko biltzar nagusia egiteko. Bulegoaren berritzerik ez zen izan, bi urtetik egiten baita, elkartearen diru sartze nagusia karten salmentarekin lortzen dute. Aurtengo kantaren prezioa 7,70 euro da eta oraindikan herriko erretiratuek eros dezakete. Bertzalde, Herriko Etxeak dirulaguntza ttiki bat ematen dio urtero elkarteari. Biltzarrean 90 bat presuna elkartu ziren, baita hunen ondotik egin zen bazkarian. Oturuntza giro goxoan iragan zen Koxe Larzabal bere akordeoiarekin alaitu zuelarik.

Elkarteko lagunek asteazkenero biltzen ahal dira lokalean, arratsaldeko 2etatik 6ak arte, bainan hitzordu honek arrakasta eskasa du, 15 pertsona baizik ez baitira biltzen astero. Maiatzaren 15ean, asteazkenarekin, urtero bezala Jean Pierre Borda Pullman ostatuko nagusiak Beti Gazteko partaideak esker onez gomidatzen ditu krakada egitera.

### *Zazpiak Bat-en gaualdia*

Martxo bukaeran, 100 bat presunek parte hartu zuten Zazpiak Bat elkarteak Omordian antolatu gaualdian. Besta dantza ikusgarriarekin hasi zen eta ondotik zintzur-bustitzea eta Tupiñak apaindu afaria zerbitzatuak izan ziren. Zizka-mizkak, elkarteko bulego-kideek prestatuak zituzten. Antolatzaileak biziki pozik agertu dira, baina burasoen parte hartze handiagoa espero zuten.

Bertzalde, besta horren karietara, marrazki lehiaketa antolatua zen. Lehen saria Sonia San-Estebanek irabazi du, bigarrena Maiena Arizkorretak eta hirugarrena Stéphanie Larzabalek eta Alain Hariñordokik. Bertze sari bat emana izan zaio Maialen Oronozi, berak egin marrazkia "errealitatetik hurbilena" baitzen. Horretaz gain, xingar azpi bat zozketatua izan da eta Seberiano Larraldek irabazi du.

### *Bertsolari txapelketa*

Martxoaren 24an, Nafarroako Bertsolari Txapelketaren lehen finalerdia jokatu zen Omordian. Sustrai Colinak puntu gehienak bildu zituen eta ondorioz, zuzenean sailkatu da Donezteben apirilaren 14an jokatuko den finalerako. Bertze bortzek, Burlatan eta Bidarrain jokatu diren bertze finalerdien beha egon behar dute, jakiteko finalean parte hartzen ahalko dutenez.

### *Errugbi denboraldia*

Errugbi denboraldia bururatu da Sarako Izarra taldearentzat. Martxoaren 31n, baitezpada irabazi behar zuten Herm taldearen kontra, hori irabaziz gero, finala jokatzea segur baitziren. Indar guziak husturik ere, ezinezkoa izan da irabaztea, nahiz eta atsedenaldian aitzinean izan (9-3). Azkenean, basurdeek 19-12 galdu dute. Hemendik goiti, indar berritzen hasten ahalko dira heldu den urteari begira.

## FLASH

### *Basurde jatea*

Urte guziz, basurde ihizi sasoinaren bururatzearekin batera, herriko ihiztariek laborariak basurde jatera gomitatzen dituzte. Aurtengo hitz ordua martxoaren 23an finkatua zen, San Iñazioko Pull Man ostatuan. Ohiturari jarraituz, "Sarako Ihiztariak" elkarteak zintzur-bustitzea eskaini du. Ondotik, aurtengo basurde nolako gustua duen frogatu ahal izan dute denek elkarrekin.

### *Elkar ezagutze afaria*

Herritarren hobeki ezagutzeko asmoz, herriko erretor berriak herriko gazteak afaltzerat gomitatu ditu joan den hilabetean. Batzuen eta bertzen erranetan, aski trukaketa interesgarria gertatu da. Ea horrelako elgarretarazeak maizago gertatzen diren hemendik goiti.

## AZKAIN

# Lau egun bestentzat eta errebestarik ez

### Jon Laduxe eta Xabi Jolimonek pilota xapelketa irabazi dute

**Ihintza, Angela eta Eneko**

Udako bestak antolatzen ari dira eta ez bada ezer finkatua oraino, komiteak jakiterat eman du aboztuaren 15,16,17 eta 18an iraganen direla. Errebestarik ez da izanen aurten. Gan den urtean baino laburragoa izanen da beraz egitaraua, bainan iragan urtean 16an ez bazen gauza haundirik izan aurten egun osoan animazioak izanen direla segurtatu dute. Musika taldeen izenak ere azaldu dituzte: Alaitz eta Maider, Gaubele, Patxi Perez, Beti Blues, Zamain, Mahamudra, Kenzazpi eta Etzakit.

Aboztuaren 25ean, aste bat berantago eta egitaraua ofizialatik kanpo, marmitako lehiaketa iraganen da plazan. 20 bikote baizik ez dira onartuak izanen aurten.

### *Sukalki lehiaketa antolatzen du besta komiteak*

Azkaingo bestentzat diru pixka bat irabazteko, animazio eguna antolatzen ari da besta komitea. Sukalki lehiaketarekin hasiko da eguna herriko plazan. Xahala saltsan prestatu beharko dute binazka lehiakideek eta bazkari herrikoia baten inguruan jastatzen ahalko dira goizeko prestakuntzak. Haurrek ere parte hartzen ahalko dute hirunazka arroltze omeleta prestatuz.

Arratsaldea Azkaindar eta Xiberotar dantzari batzuek animatuko dute. Ondotik Koldo Ameztoy ipuin kondalariak eta Belardi taldeak aurkeztuko du bakotxak bere ikusgarria.

### *Bollendorferat joan ziren 30 herritar otsailean*

Joan den otsailean Azkaindar multxo bat Alemaniako Bollendorf herrirat joan zen hango ihauterien ospatzerat urte guziz bezala. Bidaiak aste bat iraun zuen eta bertze bidaietan bezala Treves eta Luxenburgo hiriak bisitatu dituzte plazer handi batekin.

Aurten, aldiz, lehen aldikotz Koloñako ihauterien ikusteko okasionea izan zuten. Orroitzapen haundiak ekarri dituzte handik. Alemaniako ospetsuenak omen dira ihauteri hauek: desfileak 5 oren irauten ditu. Bollendorfeko auzapezaren urtebetetzea ospatzerat gomitatuak izan ziren ere. Azkain-Bollendorf elkartasun taldea ongi bizi da oraino bainan gazte gehiago ikustea espero dute ondoko bidaietan.



ANDRE DENA MARI ESKOLAK UTZIA

**Martxoan, Andre Dena Mari eskolako haurrak Pirineoetarat joan ziren eskiatzen ikasterat, Val Luron estazionean. Eski erakasleen umore ona eta haurren nahikeri handiari esker bakotxak bere maila hobetu zuen eta denak izar berri batekin itzuli ziren etxerat. Gauetan oporretako etxe batean biltzen ziren. Bertan animazio ainitz eskaini zitzaien eta azken egunean Bretaniatik etorritako haur batzuekin besta ederra egin omen zuten. Esperientzia arlo guzietan aberasgarria izan zela denentzat agertarazi dute erakasleek.**





### *Jon Laduxe eta Xabi Jolimonek pilotako finala irabazi dute*

**14 et 15 urteko gaztetxoek Union Basque xapelketa irabazi dute Apirilaren 1ean Arrangoitzen. Finala Milafrankako Eskulari taldearen kontra jokatu dute eta 40-22 irabazi. Finala-erdian errexki irabazi zuten. Ligarendako aldiz ez ziren kalifikatu. Jon Laduxe zauritua zen orduko. Ondoko partidetan Patxi Bergarak ordezkatu zuen. Argazkiak udako partida batean ateriak dira.**









## EZKONTZAK

**Juan Jose Karrikaburu Galain** eta **Maite Jaimerena Almandoz**, Elbete eta Elizondokoa, martxoaren 18an.



## JAIOTZAK

**Alain Hernandorena Lazkano**, Leitzakoa, martxoaren 14ean.
**Iñaki Gonzalez Berasategi**, Doneztebekoa, martxoaren 13an.
**Garbiñe Cortés Gutierrez**, Doneztebekoa, martxoaren 12an.
**Maddi Salazar Otamendi**, Berakoa, martxoaren 8an.
**Maiana Altzuguren Goia**, Berakoa, martxoaren 12an.
**Oihane Zelaieta Lazkano**, Berakoa, martxoaren 17an.
**Andoni Prieto Etxegarai**, Berakoa, martxoaren 22an.
**Jokin Telletxea Reyes**, Berakoa, m.artxoaren 12an.



## HERIOTZAK

**Luisa Etxegarai Ariztizabal**, Arraiozkoa, martxoaren 15ean, 98 urte.
**Saturnina Etxarri Barberena**, Elizondokoa, martxoaren 16an, 89 urte.
**Petra Cesar Armendariz**, Elizondokoa, martxoaren 24ean, 93 urte.
**Maria Modesta Apeztegia Dendarieta**, Iruritakoa, martxoaren 25ean, 92 urte.
**Maria Jesus Sanzberro Arretxea**, Etxalarkoa, martxoaren 26an, 75 urte.
**Maria Angeles Baraibar Ezkurdia**, Leitzakoa, martxoaren 23an, 64 urte.
**Jose Angel Zabaleta Zabaleta**, Leitzakoa, martxoaren 22an, 56 urte.
**Bautista Arribillaga Baraibar**, Leitzakoa, martxoaren 31n, 71 urte.
**Maria Sagastibeltza Telletxea**, Goizuetakoa, martxoaren 23an, 78 urte.
**Jose Manuel Mutuberria Pikabea**, Arantzakoa, martxoaren 16an, 59 urte.
**Martina Mitxelena Alerza**, Lesakakoa, martxoaren 31n, 96 urte.
**Andres Santesteban Ibarra**, Zubietakoa, apirilaren 1ean, 81 urte.
**Martta Perugorria**, Sarakoa, martxoaren 17an, 83 urte.
**Brigitte Delpech**, Sarakoa, martxoaren 24an, 96 urte.

Eskela jartzeko (nahi izanez gero argazkiarekin) 63,10 € ordaindu behar da **Rural Kutxako** 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz, argazkiarekin eta sartu nahi den testuarekin batera.

**Eskela eta eskertzak ttipi-ttapan 948 631188**

GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
GESTIONES FÚNEBRES DEL NORTE, S.L.
TANATORIO BAZTANDARRA
Santiago 52
ELIZONDO
Baztan, Bertizarana, Urdazubi eta Zugarramurdin
24 orduko zerbitzua tanatorioan eta etxean prezio guzietan
✆ 948 581959
✆ 900 704704

Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ✆ 948 580 645



Txuma PRIM *Laxoa Elkarteko kidea*

RAKEL GOÑI

**DATUAK...**

- Apirilaren 1etik 4ra Pilota Joko Zuzenaren lehen bilkura burutu da Baztan Bidasoan, Laxoa Elkarteak antolatua.
- Valentziatik etorritako pilotari gazteek lau egun pasatu dituzte nafarrekin esperientziak trukatzen.
- Txuma Prim iruritarra da antolatzaileetako bat. Aspalditik zebiltzan bilkura hau egiteko asmoarekin eta azkenean lortu dute. «Duela 7 urte Alberto Soldado kazetaria eta Enrique Sarasol pilotaria etorri ziren Baztanen. Geroztik harremana sendotu da bilkura antolatu arte».

# «Elkarren arteko harremanak sendotu eta pilota modalitateak ikasi nahi ditugu»

**Rakel GOÑI**

Laxoa Elkarteko kideen eta Valentziako pilotazale eta pilotarien arteko harremanen ondorio izan da Joku Zuzenaren lehendabiziko bilkura. Txuma Primek dioenez, *«Gan den urtean, abenduaren 3an, Alberto Soldado ikerlaria etorri zenean joko zuzenaren inguruko hitzaldia antolatu genuen. Hitzaldi hartara, Mariano Izeta bera joan zen. Bagenekien pilota aunitz maite zuela eta guretzat pozgarria izan zen han ikustea. Gustora pasatu genuen, Euskal Herrian uste dugulako pilotaren asmatzaileak garela eta hor ikusi genuen ez dela hala, hori ez dela egia. Euskal pilota deitzen duguna, noski, hemen asmatua da, ezkerreko pareta 36 metrokoa, pala, zesta punta, erremontea... hori bai. Baina pilota hitz nagusiekin, aspalditik esistitzen da. Jakin genuen nola jokatzen den Holandan, Belgikan, Frantziako iparraldean, Normandia eta Bretañan, Kolonbia, Ekuador, Argentinan... Aunitz ikasi genuen egun hartan. Geroztik pentsatu genuen hurrengo urtean, helduen arteko lehenengo bilkura antolatu genezakeela».*

> **Euskal Herrian uste dugu pilotaren asmatzaileak garela, eta orain zazpi urte, Alberto Soldado kazetari valentziarrak erakutsi zigun hori ez dela horrela.**

### «Bilkura honetatik bisita itzultzea aterako da, seguraski»

Helburu argiak izan ditu lehen bilkura honek, Prim-ek aipatu digunez: *«Elkarren artean harremanak lotzea, guk haien modalitateak ezagutzea eta haiek gureak zeintzuk diren jakitea. Denetara 30 gaztetxo elkartu dira. Hasieran infantil eta jubenil mailakoak izatea nahi genuen, baina batzuei arras gazteak iruditzen zitzaizkien eta azkenean adin gehiagokoak izan dira. Hasieran pentsatu genuen hemengo pilotarien etxeetan banatzea lo egiteko, baina azkenean pentsatu genuen hobe izanen zela aterpe batean lo egitea eta, beraz, BKZren Bertizko Aterpean izan dira valentziarrak».* Apirilaren 1ean harrera egin zitzaien Valentziako pilotariei Iruritan, esku pilota eta paxaka partidekin, baita dantzarien emanaldiarekin. *«Bigarren egunean laxoa eta paxaka nolakoak diren erakuts diegu eta arratsaldean, beraiek "escala o corda" eta "galocha"».* Helduendako mahai ingurua antolatu zuten egun berean. Hurrengo egunetan pilota modaitate ezberdinak ikasi eta aritzeko aukera izan zuten gaztetxoek.

Orain, nafarrek Valentzia bisitatzea gelditzen da: *«Oraindik goiz da erráteko, gogoa badugu. Pilotari profesionalak izan dira harat jokatzera joan direnak, eta haiek bezala guk ere joan nahiko genuke. Seguraski bilkura honetatik bisita itzultzea aterako da».*

AREТО-FUTBOLA

# Baztan-Bidasoako txapelketa final zortzirenetan sartuko da igandean

## Lehendabiziko faseko 23 taldeetatik 16 geldituko dira lehian

Erreka elkarteak hamargarren aldiz antolatutako Baztan Bidasoako areto futbol txapelketa azken txanpan sartuko da igande honetan. Orain arte lehen fasea jokatu dute eskualde osoko 23 taldek. Horietatik hamasei geldituko dira apirilaren 14ko final laurdenak jokatzeko. Orain arte bezala, Sunbillako pilotalekuan eta Doneztebeko udal kiroldegian jokatuko dira partidak, arratsaldeko 4etan hasi eta 7ak bitartean. Final laurdenetatik aitzinera, ordea, Donezteben jokatuko dira partida guziak. Apirilaren 21ean jokatuko dira, arratsaldeko 4etatik aitzinera. Finalerdiak apirilaren 28an izanen dira, arratsaldeko 5etan eta 6etan. Azken partidak, berriz, maiatzaren 5ean jokatuko dira. Arratsaldeko 5etan hirugarren posturako lehia izanen da eta 6etan final handia.


Artxiboa
**Elizondoko Goizalde Ostatua, iazko txapelduna, ederki aritu da lehen fasean eta berriz ere txapeldun izateko faboritoetako bat da.**

Lehendabiziko fasean nagusi izan ziren beraien multzotan joan den urteko finalistak, Elizondoko Goizalde Ostatua eta Doneztebeko Titi Ostatua. Aurten ere, nahitaez txapeldun suertatzeko faboritoen artean izanen dira biak. C multzoan, Nottingam Prisa sunbildarrak izan dira buruan. Dena den, faboritoez gain, ezustea ematen ahal duen talde bat baino gehiago ere bada.

FLASH

### *Eskuz banakako pilota txapelketa*

Aste Sainduan txapelketatik kanpo gelditu dira eskualdeko bi ordezkari. Inaxio Errandonea alkaiagarrak Asier Olaizola goizuetarraren kontra galdu zuen Villamediana de Ireguan eta Aimar Olaizola goizuetarrak Patxi Ruizen kontra galdu zuen Lodosan. Joan den ortziralean Lasa III.aren kontra aritzekoa zen Olaizola I, Berna eta Inaxio Errandoneari irabazi ondotik. Mikel Goñi oronoztarra berriz, aste hondar honetan sartuko da jokoan final zortzirenetan, Gonzalez eta Kokaren arteko partidaren irabazlaren kontra. Abel Barriola leitzarra, azkenik, zuzenean final laurdenetan hasiko da, joan den urteko txapelketa bikainaren ondotik goiti egin baitzuen eskaileran. Apirilaren 21ean jokatuko du, Errastik Elkoro eta Zearraren arteko partiduko irabazlearen kontra jokatuko duen norgehiagokaren garailearen kontra. Maiatzaren 5ean finalerdiak eta 19an finala jokatuko dira.

PILOTA

# Doneztebeko VIII. paleta goma txapelketan izena emateko epea igandean akituko da

## Bikote bakoitzak 18 euro ordaindu behar ditu

Igande honetan, apirilak 14, akituko da Erreka elkarteak zortzigarren urtez antolatutako paleta-goma txapelketa irekian izena emateko epea. Bikote bakoitzak 18 euro (3.000 pezeta) ordaindu beharko ditu txapelketan parte hartzeko eta horretarako 948 450144 telefonora deitu beharko du.

Sariei dagokienez, txapeldunek txapelak eta trofeoekin batera 240 euro eskuratuko dituzte, azpitxapeldunek 120 euro eta trofeoak, hirugarrenek 60 euro eta laugarrenek trofeoak.

MENDIA

# Maiatzaren 19an eginen da Sarako IX. Itzulia

Axuria mendizale elkarteak bederatzigarren urtez antolatutako Sarako Itzulia maiatzaren 19an, Mendekoste egunez, eginen da. 45 kilometrako ibilbide gogorra izanen dute partehartzaileek, tartean Suhalmendi, Larrun, Ibanteli eta Atxuriako kaxkoak igan beharko dituztelarik, eta hamar oren terdi inguru beharko dituzte burutzeko. Abiatzeak goizeko 7etarik 8ak bitartean eginen dira eta izen-ematea 6,30etarik goiti. Izen ematereakoan 5 euro ordaindu beharko dira. Informazio gehiagorako edo izen emateko telefono honetara deitu: 0559542526. Bertzenaz, Internet-eko http://monsite.wanadoo.fr/axuria helbidean.

# AGENDA egunez egun

**TOPAKETAK**

**ZUGARRAMURDI**

**Apirilaren 13 eta 14an** Eskual Titiriteroen IV. Topaketa. Antzezlanak, karrika animazioa, txontxongiloak, igandeko bazkaria...

**KANTALDIA**

**ZUGARRAMURDI**

**Apirilaren 14an 18:00etan** Ruper Ordorika Akelarrenean.

**ERAKUSKETAK**

**ELIZONDO**

**Apirilaren bigarren hamabortzaldian.** Arizkunenea Kultur Etxean emakumeen margo lanak.

**KANTU AFARIA**

**GOIZUETA**

**Apirilaren 13an.** Umore Onak antolatua.

**TXAPELKETAK**

**GOIZUETA**

**Apirilaren 20 eta 27an.** Mus eta Truke txapelketak. Umore Onak antolatua.

**DONEZTEBE**

**Apirilaren 14an.** Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala. Arratsaldeko 5etatik aitzin Bordatxon.

**ANTZERKIA**

**BERA**

**Apirilaren 13an** arratsaldeko 8 etan, Lesakako Mairu Antzerki taldearen, "Zugarramurdiko Sorginak" lana, Kultur Etxean.

**ZINE-KLUBA**

**BERA**

**Apirilaren 11n** arratseko 8:30etan "Nueve Reinas" filme argentinarra.

**Apirilaren 18an.** 20:30etan Magnolia filmea. Ondotik Iñaki Arrubiaren komentarioa.

## TELEBISTAKO TXOKOA





BORTZIRIETAKO MANKOMUNIDADEAREKIN BAT

# Ahozko tradizioa biltzen lagunduko du Ttipi-Ttapak

Nora Iriarte eta Maite Lakar-ek Bortzirietako ahozko tradizioa biltzeko beka lortu zutenetik lan handia egin dute. Ipuinak, erranera zaharrak, kantuak, igarkizunak, kontakizunak eta abar biltzen ari dira gero material hori gizarteratzeko.

Ttipi-Ttapa telebistak, Bortzirietako Mankomunidadearekin eta bi gazte hauekin bat eginik, ahozko tradizioaren grabaketa batzuk eginen ditu, noizbait emititzeko intentzioarekin. Norak eta Maitek Mini-disc bidez grabatu dituzte elkarrizketa batzuk eta kasuren batean bideoa erabiltzea erabaki dute. Horretarako Ttipi-Ttapa telebistaren laguntza izanen dute. Mini-disc-etan dagoena identifikatzeko etiketa prestatzen dute eta informaziorik baliagarriena transkribatzen dute.

Grabaketa guztiak hitzordua jarrita eginen dituzte. Lehendabiziko egunean ez dute gehienetan grabaketarik egiten, pertsona ezagutu eta konfiantza har dezan erabiltzen dute lehendabiziko eguna.

Elkarrizketatuek bertako hizkera erabiltzen saiatu behar dute grabaketak aberatsak izateko eta ahalik eta informazio gehien erabili ahal izateko. Hasierako kontaktua horretarako dago, hizkuntza-mota kontrolatzeko.

## DISKAK




***«Hi bizi hadi»***

**Urgabe**

*ELKAR*

"Hi bizi hadi" Urgabe taldearen diska berria gazteei zuzendutako diskoa da. Kantuetan beren arazoak, amodio eta desamodioak zein laneko kontuak islatu nahi izan dituzte. Hasierako diskotik bigarren honetara Urgabe musikalki hazi egin dela azpimarratu daiteke. Oraingo honetan taldeko kideek beraiek asmatu dituzte bai hitzak bai doinuak. Disko pertsonalagoa osatu nahi zutenez, ez dute kanpoko kolaboraziorik bilatu nahi izan. "Hi bizi hadi-n" zuzeneko freskotasunari eutsi nahi izan diote; kantuak entzun eta jendeak plazetako Urgabe nolakoa den jakin zezala zen helburua. Mikel Romero taldekideak eta Jean Phocasek ekoiztuta, Urgabek Elkar estudioan grabatu zuen joan den urtarrilean. Diskoak hamabi kantu biltzen ditu, amodiotik lan kezketara doazen abestiak aurki dait.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(Martxoaren 15etik 22rako prezioak)

### ZERRIKIA



**Zerrikumea**
(19 kilo): 45,00 €

**Zerri gizena**
(95-100):1,11 €

**Zerramak:**
0,62 € kiloa, bizirik.

### BEHIKIA



**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,31
**1.koa** 3,19
**2.koa** 3,07
**Urruxak: Pta/kg. Kanal**
**Extra** 3,37
**1.koa** 3,25
**2.koa** 3,13

Oharra: Prezioak 200-230 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Mestizoak:** urruxak 234,39 € eta idixkoak 222,37 €.

**Nabarrak:** urruxak 216,36 € eta idixkoak 192,32 €.

**Zaldikoak: €/k**
Sortuberriak: 3,01/3,07
Zaldi-behorrak: 1,92/1,98

**Bildotsak: €/k**
6-8 kilokoak: 5,10/5,40
8-10 kilokoak: 4,45/4,75

## JAKIN BEHARREKOAK



# Euroari buruzko galdemoduak

**Martxoaren 1etik aitzin pezetak eta liberak euroengatik aldatzen ahalko dira?**
Bai. Banketxe eta aurrezki kutxa guzietan txanponak eta billeteak trukatu ahal izanen ditugu ekainaren 30a arte. Oroitu bakoitzak bere herrialdean aldatu beharko dituela. Uztailaren 1etik aitzin, Espainia eta Frantziako Bankuetan bakarrik hartuko dituzte pezetak eta liberak. Momentuz, kasu honetan ez dago eperik. Trukea egitea dohakoa izanen da eta debekatua dago edozein komisio kobratzea.
**Nola aldatzen ahal ditugu seiluak edo tinbreak?**

*Seiluak pezeta eta liberetan otsailaren 28an bere balioa galdu dute. Halere ekainaren 30a arte aldatu ahal izanen ditugu posta bulegoetan.*

Duela urte bat, seiluak, bai euro eta bai pezeta edo liberetan agertzen hasi ziren. Seilu hauek otsailaren 28an galdu dute bere balioa. Halere hegoaldean posta bulegoetan ekainaren 30a arte aldatzen ahal izanen ditugu. Uztailaren 1etik aitzin Postako Zerbitzu Filatelikora jo beharko dugu seiluak aldatzera.
**Zein da Europar Parlamentuaren betebeharra Moneta eta Ekonomia Batasunean?**
Europar Batasunak hartzen dituen erabakietan gero eta eragin handiagoa du Europar Parlamentuak. Moneta eta Ekonomia Batasunean, Europar Parlamentuak legedia onartzeaz arduratzen da. Zenbait kasutan ere, funtzionamenduari dagokionez, kontsulta erakundea da. Euro eremuan sartzeko gai diren herrialdeak hautatzeaz arduratzen da. Europako Banku Zentraleko presidentea hautatzen du.

**Nafarroako Kutxa**
**Accion Euro**

accion euro

## LIBURUAK



*Euskal Izendegia*

**Jose M. Satrustegi (Euskaltzaindia)**

*Eusko Jaurlaritza*

"Euskal Izendegia: Ponte Izendegia" izeneko lana publikatu du Euskaltzaindiak. Izendegi hau eta, Akademiak aurretik argitaratu zuen deiturei buruzko lana, legezko araudiak dira. Beraz Erregistro Zibilean aldaketak egin ahal izateko erabili daitezke, izenak itzuli edo euskal grafiara egokitzeko. Liburuan 2.264 euskal izen bildu dira. 834 gizonezkoenak dira eta 1.430 emakumezkoenak. Bost taldetan sailkatuak aurkituko ditugu: euskal tradizioko izenak (Eneko, Andere, Otsanda...), tradizio europarreko izenak (Peru, Monika, Frantziska...), amabirjina izenak (Ainhoa, Leire, Irantzu...), Sabino Aranak eta Elizaldek asmaturiko izenak (Kepa, Miren, Kirmen...), eta beste zenbait izen, arruntak eta toponimoak, gaur egun erabiltzen direnak (Oihana, Saioa, Ibai...). Euskaltzaindia aurretik agertutako izendegietan oinarritu da lana osatzeko, 1966an Aingeru Irigarairena eta 1972koa Jose Mari Satrustegirena.

## AGENDA egunez egun

### SOLASALDIAK

**BERA**

**Apirilaren 15etik 18ra.** Uxua emakume taldeak antolatuak, "Etxean erabiltzen ditugun botikak" gaiarekin. Iamotenean 6etan. Nafarroako Botikarien Elkarteak emanak.

### TANTIRUDANTZA

**LESAKA**

**Apirilaren 21ean.** Tantirumairu Euskal Folklore Taldeak antolatua, 11etan ongietorria, kalejira, ondotik Plaza Zaharrean dantza ikuskizuna. Arratsaldeko 6etan Kulki animazio taldea. Euria eginez gero emanaldiak pilotalekuan eginen dira.

### CLOWN IKASTAROA

**BERA**

**Apirilaren 14an igandea.** BAI teatrok antolatua 8 orduko ikastaro trinkoa.

### BATZARRA

**ELIZONDO**

**Apirilaren 12an.** Ortzirala. Erdizen aldeko batzarra, ilunabarreko 8etan, Arizkunenean. Baztango Batzar Nagusian solastutakoa tratatzeko.

### SOLASALDIA

**BERA**

**Apirilaren 12an** Pako Aristi idazlea Iamotenean.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Apirilaren 8tik 14ra**

Bera (Apeztegia), Doneztebe (Etxarte), Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta

**Apirilaren 15etik 21era**

Lesaka, Ituren, Arizkun, Leitza eta Goizueta.

**Apirilaren 22tik 28ra**

Bera (Fdez. Diez), Narbarte, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

# MERKATU TTIKIA

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

00-34 948 63 11 88

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

**ETXEBIZITZAK**
- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

**LANA**
- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

**MOTORRA**
- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

**DENETARIK**
- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
- 801. Agurrak



ETXEBIZITZAK

## 101 Saldu

**BEINTZA-LABAIEN. Baserria** lur eremuarekin salgai. ☎ 948 450 039

**BERA. Pisua salgai** Legia, 53-3. pisuan ☎ 696 753 366.

**BERA. Pisua salgai Legia** 21-4Bn. ☎ 948 631 383

**BERA. Pisua salgai** mobleztatua, garaje, kalefakzio, trastero eta lorategiarekin. ☎ 948 631 074 (Gauez)

**ELIZONDO. Pisua salgai** Braulio Iriarte karrikan. Mobleztatua eta berritua. ☎ 667 418 661

**LESAKA. Pisua salgai** Antoiu karrikan 5. solairua igogailuarekin. Sukalde ekipatua, kalefakzio eta ganbararekin ☎ 607 853 208

**LESAKA. Etxea baratzearekin** salgai. Herri erdian. Ote karrikan. ☎ 607 853 208

**BERA.** Etxea, lur eremuarekin salgai. Herrian bertan. Prezio interesgarria.
✆ 607 978656

**SUNBILLA.** Eraikitzen ari den etxea, lur eremuarekin salgai.
✆ 948 451841
✆ 607 978656

ADOS
- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.
✆ 948 451 841
607 978 656

ADOS
DONEZTEBE
Pisu berriak salgai.
Azken bi etxeak.
Bigarren eskuko bi etxe salgai.
5.500 m²ko terreno eraikigarria, 2 txalet egiteko aukera.
BERA
SALGAI: Pisu batzuk, estatua den bajera, 2 pisu Eztegara Pasealekuan

ETXEBIZITZAK

## 103 Errentan eman

**BERA. Pisu mobleztatua** errentan eman nahi da. Herri erdian. ☎ 948 630 297

**ITUREN. Pisua errentan ematen da.** ☎ 948 451 622

ETXEBIZITZAK

## 104 Errentan hartu

BERA edo ETXALARREN **baserria errentan hartuko** genuke. ☎ 699 526 512

ETXEBIZITZAK

## 106 Bertzelakoak

Pertsona bat eskaintzen da **baserria edo borda zaintzeko**, behar diren lanak eginez, **bizitzen jartzearen truke.** ☎ 948 630 630

GARAJEAK/LOKALAK

## 109 Errentan eman

**LEGASA.** 450m²ko nabea alokatzen da. ☎ 629 348 491

**BERA. Bajera** errentan emateko. Alkaiagako tunelaren ondoan. ☎ 678 445 490

GARAJEAK/LOKALAK

## 113 Erosi

**Guttienez 3.000 m² dituen lur eremua** erosiko nuke. Bera edo Etxalarren. ☎ 699 526 512

**OPOKA Jatetxe-Tefegia**
⌘ Jateko, gustura egoteko eta guk hautaturiko **te, kafe eta txokolateekin** gozatzeko aukera.
⌘ Enkarguz eskatutako **janari begetarianoa**.
⌘ **Gozotegi espezializatua**, partikular nahiz ostatu eta jatetxeendako.
☎ 948 45 61 65 • 649 96 41 44 • LEGASA

LANA

## 301 Eskariak

**Elektronikan esperientzia duena** eskaintzen da edozein lanetan aritzeko. ☎ 617 543 863

**Emakume arduratsua** interna edo externa moduan lan eginen luke. (haurrak edo adinekoak zaintzen, etxeko lanetan...) ☎ 649 770 304

**Haurrak edo adinekoak zaindu**, edo etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 626 852 937

**Haurrak edo adinekoak zaindu**, edo etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 659 718 124

Mutil batek **eraikuntzan** edo **nekazaritzan** lan eginen lu-

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

MENDIALDE
Jatetxea
AMAIUR • ✆ 948453060

manelsa s.l.
elektrizitate industriala
Instalazio eta muntaia elektrikoak
Mantenimendua
Automatismoak
Iluminazioa
Amaiur 2, behea
Sakelekoa: 686 466 865
31700 ELIZONDO
Artekale 22, behea
Tel. eta faxa: 948 301 025
Sakelekoa: 686 466 866
31195 BERRIOZAR (Nafarroa)

ke. ☎ 659 718 124

Paperak dituen mutil batek **parqué fabriketan** edo-**mendi lanetan** arituko litzateke. ☎ 649 770 304

Emakume bat **adinekoak zaintzen edo bertze lanetan** arituko litzateke. ☎ 948 630 506

## LANA
### 302 Eskaintzak

Goizez etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko **emakumea behar da.** ☎ 948 635 244

**IBARDIN. Zerbitzaria** behar da asteburu eta udarako. Jateko orduak. ☎ 948 631 339

**BERA. Sukaldari laguntzailea** jornada erdirako eta **kamarera** jornada erdirako behar dira. ☎ 948 631 584

**ALKAIAGA. Elektrizista** behar da. ☎ 619 829 289

**URDAZUBI. Sukaldari laguntzailea** behar da. ☎ 619 829 289

**DONOSTIA. Neska euskaldun bat** behar da, interna, etxeko lanak egiteko. ☎ 943 214004.

## MOTORRA
### 501 Salerosketak

**Peugeot 205 diesela SRD** salgai. NA-P. Egoera onean. ☎ 948 634 112

**C15 Diesela salgai.** Egoera onean dago. ☎ 948 638 144

**Pascuali markako traktorea** salgai. ☎ 948 450 039

**Pascuali markako traktorea** 18 zaldikoa eta **motoazada salgai.** ☎ 948 397 072

**Ford Fiesta salgai.** NA-AD. Egoera onean. ☎ 948 610925

**Lada Niva,** marka merkea salgai ☎ 607 978 656

**Audi 100 2.5 TDI, 115 cv,** nazionala salgai. Egoera onean. ☎ 600 474 260

**Rieju RS1 Evolution** salgai. Egoera onean, extra askorekin. ☎ 639 934 770

**Opel Calibra 2.0** 16V gorria salgai. Egoera onean. 3.606€ (600.000 pta) ☎ 687 726 514

**Derby Senda SR** motoa salgai. ☎ 646 161 282

**Peugeot 306, lau llanta berri eta lau gurpil** salgai. 185-60-R14 neurrikoa. Egoera onean. ☎ 617 144 218

**Nissan Patrola salgai.** 92. urtekoa. NA-6606-AH. 94.000 km. Arras egoera onean. ☎ 943 630 330 • 943 628 164

## MOTORRA
### 502 Tailerrak


**MENDAUR MOTOR**
☎ 948 450333 • DONEZTEBE
**Bigarren eskuko kotxeak:**
Opel Monterey 5 ate, Astra TDI, Astra 1600 club, Megane TDI, Terrano II 125 cv
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN


## ANIMALIAK
### 602 Saldu/Erosi

Bi urteko **ahari muturgorria salgai.** ☎ 948 451 696 (goizeko 8:30etatik 9:30etara)

**6 Pauma, "Pavo Real"** salgai. 4 arrak eta 2 eme. 9 hilabetekoak. ☎ 948 630 140

**Hiru ahari muturgorri salgai.** ☎ 948 397 004 • 646 003 662

**Spaniel arrazako zakurkumeak** salgai, zuri-marroiak, bi hilabete terdikoak. ☎ 948 637519 - 677 594892.

# BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

**LAN POLTSA:**
**KLASE PARTIKULARRAK EUSKARAZ**
**eman nahi dituztenekin**

- **Helburuak:**
  - ✓ Klase partikularrak euskaraz emateko prest dauden irakasleen zerrenda osatzea.
  - ✓ Bortzirietako guraso elkarteetan zerrendak banatzea.
- **Ezaugarriak:**
  - ✓ Norberak erabakiko du klaseak Lehen Hezkuntzan, DBH edo bertze mailetan eman nahi dituen.
  - ✓ Norberak erabakiko du ikasgai zehatzak edo orotarikoak eman nahi dituen.
  - ✓ Norberak erabakiko du uda partean, ikasturtean zehar nahiz urte osoan arituko den klaseak ematen.
- **Izen ematea:** Epea: maiatzaren 3a, ortzirala.
  Telefonoa: 948 634 125

## DENETARIK
### 701 Galdu/Aurkituak

BERA. Altzate inguruan **forro polar grisa** galdu da. Sakelean giltzak eta walkmana ditu. ☎ 656 736 208

## DENETARIK
### 702 Salerosketak

Egur **sukalde kalefaktora** ia berria salgai. Sukaldatu daiteke. ☎ 948 451 696 (goizeko 8:30etatik 9:30etara)

**Esne tankeak, 350 litro eta 150 litrokoak** salgai. ☎ 948 450 101 • Gaueko 9etatik aitzin: ☎ 948 451 687

**ZZ Fabiola Zapaterian** likidazioa. **Dena %50ean** negozioa ixteagatik.

**Akazizko mila pikete** salgai Goizuetan. ☎ 948 514 246

## HARREMANAK
### 801 Agurrak

**Aupa Txetxu!** Segi beti bezain jator.

**Zorionak Ainhoa Retegi eta Ainhoa Errandoneari** apirilaren 3 eta 4an urteak bete dituztelako. Kuadrilla Burugabik.

# ETXALARko UDALA

**KANPOSANTUKO DRENAJEA**

- **Adjudikazio mota:** Prozedura negoziatua prentsan iragarritakoa.
- **Kontrataren aurrekontua:** 9.001,23 euro (BEZa barne)
- **Egiteko epea:** Adjudikazioaren jakinarazpena hartu eta hiru hilabeteko epean.
- **Proposamenak aurkezteko epea:** 2002ko apirilaren 25eko 12etarako.
- **Dokumentazio teknikoa eta eskaintza ekonomikoen irekitzea:** 2002ko maiatzaren 2an, arratsaldeko 7,30etan.
- **Proiektua eta baldintzak** lizitatzaileen eskura daude herriko idazkaritzan

Etxalarren, 2002ko apirilaren 2an

ALKATEA,
Miguel Mª Irigoien Sanzberro


Philippe GAMOY
Geólogo
**IKERKETA**
Geologikoak
Geoteknikoak
Hidrogeologikoak
Ingurumenakoak
Móvil: 620.796.005
Xalbador Kalea, 28 - 31700 ELIZONDO (BAZTAN)



Ilepaindegia
Apirilean eskeintza berezia asteazkenetan kolorearekin batera ilemozketa dohain
IZANA
Aguerra Auzoa
Ziburu, 4
Tel. 948 625149

# ORDOKI ALTZARIAK

**Estilo ugariko mobleak**
kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak

Larunbat goiz eta arratsaldez irekia

**ERAKUSKETA:** Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
**SALTOKIA:** Plaza Zaharra 27 •Tfnoa: **948 637780**
NA-31780 **LESAKA**







# ESPERANTZA SENDOA

## Bortzirietako Bautistaren Eliza




**Bidasoa karrika, 45 (Txarmanta)**
**Agerra Auzoa**
**31780 BERA**

***rog@ctv.es***
***www.ctv.es/USERS/rog***

Apartado 45
31780 BERA (Nafarroa)
948-635224 edo 607-417302

## 1. urteurrena

apirilaren 21a
arratsaldeko 6:00etan

MEZUA:
Jainkoaren maitasuna

MUSIKA:
Musika sakra ona

BIDEOA:
"Betikotasuna"

Ondotik...
merendua

*"Salbatuak gaude, bai, baina itxaropenetan bakarrik.*
*Eta itxaro duguna begien aurrean bagenu,*
*hori ez litzateke itxaropena izango*
*inork ez baitu itxaroten begien aurrean duena"*
(Erromatarrei 8:24)

# MUEBLES AMETS

**Sarrera BERAtik da**

*Alkaiagako industrialdean*

*Sastrin karrika, 3.2 - 3.4*

**31789 LESAKA**

*Tfnoa. 948 630 537*

*Fax. 948 631 443*

*Larunbat arratsaldetan irekia*











- ***Ofizialendako planoak***
- ***Aurrekontuak konpromezurik gabe***
- ***Elektrogailuetan eskaintzak***
- ***Bat datozen mahaiak eta aulkiak***
- ***Proiektua ordenagailuz:***
  ***Ikusi zure sukaldea erabaki baino lehen***





